

RECOMMONS EUROPE

EUROPAKO HERRIEN
INTERNAZIONALISMO
BERRIAREN
ALDEKO
MANIFESTUA

HITZAURREA

Testu hau **“Europako herrien internazionalismo berriaren aldeko manifestua”**ren laburpena da; manifestua 2019ko martxoaren 21ean argitaratu zen ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz.

Manifestu hau Europako hainbat herrialdetako aktibista eta iker-tzaileek osatutako kolektibo batek idatzi du, eta beronen xedea da ezker herritarreko indarrek gauza lezaketen plan bat proposatzea. Guztiak ere «ReCommonsEurope» egitasmoaren partaide dira, zeina nazioarteko CADTM eta EreNSEP sareek eta ELA euskal sindikatuak abiatu zuten egungo Europan ezker herritarrak dituen eztabaida estrategikoetan ekarpena egiteko. Testua urtebetean idatzi zuten sei herrialdetako (Belgika, Bosnia, espainiar Estaturua, Frantzia, Grezia eta Britainia Handia) hamasei lagunek; hauek hainbat erakunde eta mugimendutako aktibistak dira (sindikatuak, alderdi politikoak, aktibista

mugimenduak), ezagutza anitz eta osagarriak dituztenak (ekonomia, zientzia politikoak, filosofia, antropologia, zuzenbidea, ekologia, sindikalismoa, feminismoa, Ipar/Hego solidaritatea, etab.). Hiru belaunaldi daude horien artean. Manifestua 21 europar herrialdetako 160tik gora sinatzailek babestu dute. Hauetatik gehienak emakumeak dira. Sinadura bilketak aurrera darrai, baita Manifestu hau sorrarazi duen gogoeta nahiz lan kolektiboak ere.

Proposamen koherentea egin dugu ezkerreko indar herritarrek hartu beharreko konpromiso, ekintza eta neurriei buruz. Proposamenek, herri gobernu bat boterera heltzean aurre egin beharreko arazoak hartzen dituzte aintzat. Manifestuaren helburua dira toki, nazio zein nazioarte mailan oinarritzko giza- eskubideen, guztientzako berdintasunaren, askapen sozial eta demokraziaren alde eta ekosistemen suntsipenaren aurka borrokatzen

diren erakunde politiko eta herri mugimenduak (sindikatuak, elkar-
teak, herritarrak).

Gure asmoa da analisi eta proposa-
menok ezker sozial eta politikaren
eztabaidan sartzea, baita egungo er-
ronka handiei aurre egiteko aldake-
ta erradikala beharrezkoa dela uste
duten Europako aktibista guztie-
nean ere. Europa krisi larri eta luzea
ari da pairatzen. Europar Batasuna-
ren eraikuntza oraindik ere anti-
demokratikoa da, eta aberatsenen

zerbitzura dago. Azken urteetan
hainbat aukera galdu da, batik bat
2015ean Grezian. Krisi ekologikoak,
austeritate politika bortitzak, es-
kuin arrazista eta xenofoboaren
gorakadak dakarren arriskua me-
dio, are premia handiagoa da auto-
antolakuntza, herri mugimenduak
eta antolakunde politikoak konbi-
natuko dituen estrategia definitzea,
politika gehiengoaren esanetara
jarriko bada.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	2
SARRERA	5
1. ATALBURUA - Herri gobernu baten lehen erabakiak	15
2. ATALBURUA - Bankuak	20
3. ATALBURUA - Zorra	24
4. ATALBURUA - Lana, enplegua eta eskubide sozialak	27
5. ATALBURUA - Ekosozialismoa eta energia trantsizioa	31
6. ATALBURUA - Feminismoa	35
7. ATALBURUA - Osasuna, hezkuntza eta etxebizitza	39
8. ATALBURUA - Nazioarteko politikak	43
9. ATALBURUA - Borroka sozialak, konfrontazio politikoak eta prozesu eratzailleak	47

Manifestuaren bertsio luzea: [www.cadtm.org/Europako herrien internazionalismo berriaren aldeko manifestua](http://www.cadtm.org/Europako_herrien_internazionalismo_berriaren_aldeko_manifestua)

SARRERA

Azken hamarraldian herri-tarren haserrea Europan adierazi izan da enpresarik handi eta aberatsenen aldeko politiken aurka, baita gobernu nazionalak ezarritako erabaki diskriminatzaile eta antidemokratikoen kontra, zeintzuk sarri Europar Batasunak (EB) koordinatu dituen. Ondoeza hainbat modutan islatu da: ekinaldi sindikaletan, baina baita mugimendu berrietan, esaterako «15-M» espainiar Estatuan (atzerrian “suminduen” mugimendua ere izendatu dena), Grezian plazak okupatu direnean eta 2011n Portugalen izan ziren manifestazio erraldoietan, Frantzian lan erreformaren aurka (“Nuit debout” mugimenduaren sorrera) eta 2016an Irlandan uraren gaineko zergaren aurka izan ziren mugimenduetan, 2017an Katalunian autonomiaren alde eta errepresioaren aurka egin ziren manifestazio handietan. Borroka feministek mobilizazio historikoak egin dituzte

Polonian (2017an, abortua galarazi nahi zuen legearen aurkako “Czarny Protest”), Italian (“Non Una di Meno”, 2016tik hona), espainiar Estatuan (non 2018ko martxoaren 8an 5 milioi emakumek greba feminista egin zuten), edota Irlandan, non Eliza katolikoaren eragin politikoari gailenduta, 2018ko maiatzean erreferendumean abortua legezatu zen, eta azkenik, bere zentraltasuna ezartzen ari da borroka sozial gutietan. 2018 urtean mugimendu sozial berriak sortu ziren nagusi den ordena ekonomiko eta politikoaren aurka, esaterako Hungarian “esklabotzaren legea” izendatu zen lan erreforma neoliberalaren aurka, Alemanian “Unteilbar” (“zatiezina”) izeneko mugimendu antirrazista, eta Frantzia zein Belgika frankofonoan Gilets Jaunes (Jaka Horiak) mugimendua, batik bat zerga-politika injustuen eta instituzio politikoetako demokrazia gabeziaren aurka diharduena. Ezin ahaztu,

***Manifestu hau larrialdi
sozial, ekologiko,
demokratiko, feminista
eta solidarioaren
baitako herri
mugimenduen
logikan kokatzen da***

bestalde, gazteek herrialde askotan deitutako klimaren aldeko manifestazio ekologista eta greba deialdiak, esaterako Suedian, Danimarkan, Suitzan, Belgikan, Frantzia eta Britainia Handian. Mugimendu hauek guztiek eta beste askok aurre egin diote austeritateari eta politikek Europan hartu duten orientazio autoritarioari, zuzenean edo zeharka jendarte-proiektu guztiz alternatiboa planteatuz kapitalismoaren, produktibismoaren, arpilatze ekologikoaren, arrazismoaren eta patriarkatuaren aurrean. Manifestu hau mugimendu horiekin eta beren helburuekin bat dator: zapalkuntza ororen aurkako borroka, guztion eskubideen alde, berdintasunaren alde eta enpresetako zein langile-auzoetako ateetan amaitzen ez den demokrazia baten asmakuntzaren alde, eta guztiz antinomikoa izan dadin logika kapitalistarekiko, zeinak eskubide sozialak nahiz inguru-mena suntsitzen dituen.

Mugimendu hauek larrialdi sozial, ekologiko, demokratiko, feminista eta solidarioaren baitan dihardute. Larrialdi soziala, izan ere, Europako langile-klaseen bizita eta lan-baldintzak azken hogeita hamar urteotan etengabe okertu baitira, are azkarrago kontinentea 2008-2009an astindu zuen krisitik aurrera. Larrialdi ekologikoa, kapitalismoak eskatzen duen erregai fosilen kontsumoaren hazkunde esponenzialak eta ekosistemen nolabaiteko suntsipenak gizateriaren etorkizuna bera arriskuan jartzen dutelako. Larrialdi demokratikoa, boterean dauden klaseek azken hogeita hamar urtean dominazio moduak ezartzerakoan gero eta kezka gutxiago izan dutelako itxura demokratikoa mantentzeko, eta gero eta hertsatzaileagoak izan direlako, aurrean izan dituzten erronkei erantzuterakoan. Larrialdi feminista, hainbat eratako zapalkuntza patriarkalak gero eta arbuio erreakzio masiboagoak eragiten dituelako, milioika emakume eta gizonen ozen adieraziak. Azkenik, solidaritate larrialdi bat ere badago, gerratik, pobreziatik, hondamendi ekologikoetatik edota erregimen autoritarioetatik ihesi doazen milioika migranteak geldiarazteko mugez itxiera eta harresien eraikuntza gizatasunaren ukapena besterik ez direlako. Larrialdi hauetako bakoi-

tzak desobedientzia mobilizazioak, autoantolakuntza eta alternatiben eraikuntza eragiten ditu, guztiak ere Europan alternatiba demokratikoen jatorri izan daitezkeenak.

Manifestu honetan gure gogoetaren eta ekiteko borondatearen erroak Europa mailako mobilizazio horietan daude, baina dauden muga eta instituzioetara mugatu gabe: aipatutako erronka eta eskubide guztiak mundu mailako hedadura dute, herrialde zein kontinente bakoitzean ezaugarri eta historia bereziarekin. Eraso sozialak toki mailatik mundu guztiraino antolatzen dira korporazio multinazionalen eta hauek globalizazio kapitalistako estatu eta instituzioetan dituzten interes-taldeek estrategiak bidez, oinarritzat “merkataritza librea”ren arauak hartuta. Izan ere, logika hau datza EB hegoaldeko eta Europa ekialdeko herrialdeekin garatzen ari den eta erabateko desberdintasuna ezartzen duten “elkartze akordio”etan.

Europar erakundeek jarduna funtsezkoa da nazioarte mailan politika neoliberalak egin, antolatu eta koordinatzerakoan. Gobernu nazionalak animatu egiten dituzte, edota behartu, herrialde bakoitzean soldata eta pentsioak jaistera, lan- eta gizarte-eskubideak eraistera edota

***Europar instituzioek
gobernu nazionalak
bultzatzen dituzte, eta
batzutan derrigortu,
herrialde bakoitzean
soldata eta pentsioak
jaistera, lan- eta gizarte-
eskubideak eraistera
edota zerbitzu publikoak
pribatizatze prozesuak
azkartzera***

zerbitzu publikoak pribatizatze prozesuak azkar ditzaten. Agerikoa da politika neoliberalak ez dituztela soilik instituzio europarrek agintzen –izan ere, EB-ko kide ez diren herrialdeek ere aplikatzen dituzte–, baina egia da itunak eta instituzioak haiek sustatzeko eta betearazteko tresna boteretsuak direla. Orain arteko “europar integrazio” prozesuak izan dituen faseei buruz interpretazio bat zein bestea egiten dela ere, begi bistakoa da EB beti izan dela kapitalismoaren aldeko erakunde multzo bat, eta Erromako Itunetik aurrera eratu dela kapital merkatu handi gisa, non “lehia librea eta distortsiorik gabea” dagoen, eskuhartze herritar eta demokratikotik aldendu. Baina azken aldian izan duen bilakaerak europar politiken desberdintasun eta autoritarismo kutsua areagotu

***Krisi ekologikoa
larriagoa delarik,
Europako instituzioek
sistemaz nahiago dute
kapitalismoa salbatu
gizateria bera baino***

egin du. Azken aldian desberdintasun ekonomiko eta sozialak zeharo handitu dira, hala herrialde bakoitzaren baitan nola EB erdigunearen eta barne- zein kanpo-periferien (hegoalde eta ekialdea) artean; halaber, krisi ekologikoa ere larriagotu egin da: klima aldaketa eta ekosistemen suntsipenak eragiten dituzten katastrofe naturalak, zeintzuk intentsitate handikoak eta jarraiak diren. Alabaina, Europako instituzioek sistemaz kapitalismoaren beraren biziraupena bermatu nahi dute, eta ez gizateriarena.

Gobernu gehienek gero eta handiagoak diren protesta mugimenduei erantzuteko estatu-errepresioa gogortzen dute: Grezian aurkari sozial eta politikoen aurkako mehatxuak, Frantzia eta Belgikan lege libertizidak gehitu dira eta bortizkeria poliziala areagotu, immigranteen harrera eta elkartasuna antolatzen dituzten mugimenduetako aktibistak kriminalizatu egiten dituzte, etab. Eskuin muturreko indarrek, xenofoboek eta autoritarioek hazkunde handia dute, zenbait europar gobernutan parte hartzeraino

(esaterako, Italian), edota “zentromuturreko” gobernuen agenda politikoa baldintzatzeraino (horixe gertatu da Frantzia). Bestalde, erakunde europarrak azken urteetan sekula baino aktiboago ageri dira interes kapitalisten defentsan, eta inoiz baino argiago ukatzen dute herritar borondatearen edozein esku hartze edo hautu demokratiko. Grezian diruaren bidez itoaz erantzun zuten (Estatuaren likidezia agortu zuten) 2015eko urtarrilean Syriza garaipena lortu zuenean; gero, urte bereko uztailean ezetzak irabazi zuenean gobernu berarekin ate itxien atzean negoziatzen jarraitu zuten herritarren borondatea indargabetzeko eta exekutiboaren laguntzaz hiru garren austeritate-memoranduma inposatzeko.

EB eta hainbat herrialderen artean sinatu diren migrazio politikako akordioekin, Turkiarekin 2016ko apirilean sinatu zena esaterako, instituzio hauek bat egin zuten Dublin III Arautegiaren eta Frontexen (EB mugetan immigranteen errepresiorako agentzia) bortizkeriarekin, baita nazioarteko zuzenbidearen urraketa sistematikoarekin ere, batik bat aterpe eskubideari dagokionez, eta zuzenean finantzatzen ari dira beste herrialdeen esku utzi eta hauek gauzatzen duten politika errepresiboa. Gaur EBren

“erreforma” aurreikusten duten proiektu nagusiak militaristak dira (Euroforceren aurrekontua gehitzea), antidemokratikoak (aurrekontu nazionalen kontrol europar automatikoa), eta are neoliberalagoak (zerbitzu publikoen pribatizazio orokorra lortzeko proiektuak). EB honentzat, inoiz baino areago, «itun europarren aurkako hautu demokratikorik ezin da egon»; hori esan zuen Jean-Claude Juncker Europar Batzordeko buruak 2015ean, europar instituzioen ikuspuntutik.

EBk gorpuzten duen kapitalismoaren aldeko eraikuntza antidemokratiko eta xenofoboaren aurrean zer egin dezakegu? Europar mailako hauteskunde bidezko erreforma ez da aukera errealista. Europar Parlamentuan herri ezker koalizio batek (oso) balizko gehiengoa lortuta ere, ez litzateke nahikoa izango itun nagusiak aldatu eta Europar Batzordearen zein EBZren kontrol demokratikoa ezartzeko; hauek dira Europan neoliberalismoaren gerramakina nagusiak. Parlamentuak ez dauka halako erreformarik egiteko ahalmenik eta EBZ, Europar Batzordea, baita EBJA eta europar agentziak erabat autonomo bihurtu dira herritarren soberaniarekiko. Halaber, nekez irudika daiteke estatutu kide ia guztietan aldi berean EB erreformatzeko asmoa duten gobernuak hautatzea, besterik ez bada

hauteskundeen egutegi eta zikloak desberdinak direlako. Gaur Europar Batasuna mundu mailako neoliberalismoaren aitzindarietako bat ez ezik erreforma ezineko instituzio multzo bat da; horregatik, jendartea eraldatu nahi duen ezkerrek, sinesgarri eta errealista izango bada, bere estrategiaren ardatz bihurtu behar du Europar Batasuneko itun eta instituzioekiko haustura.

Baina nola gauzatu beharko litzateke haustura hori? Badakigu ezin dela adostasuna bilatzen duten negoziazioetan oinarritu, Europako instituzioekin botere-oreka izan gabe; hori erakutsi digu argi asko 2015eko Syrizen lehen gobernuaren esperientziak. Badakigu ere haustura politikoez halabeharrez mobilizazio sozial handiak eskatzen dituztela. Tamalez, halako mobilizazioak ez ziren nahikoak izan Grezian 2015 hasieran, eta Brexitaren kanpainari beste orientazio bat eman ahal zioten, ez Britainia Handian 2016an nagusitu hartu zuen kutsu nazionalista eta xenofoboa. Hots, Europar Batasuneko itunak eta instituzioak urratuko badira bere oinarria gatazka soziala izan behar da, eta izaera demokratiko eta internazionalista eskatzen du. Manifestu honek aldarrikatzen du beharrezko eta posible dela aldi berean aurre egitea indar eta politika desberdin eta erreakzionarioei

*Beharrezko eta posible da
aldi berean aurre egitea
indar eta politika
desberdin eta
erreakzionarioei
nazio, Europa eta
nazioarte mailan*

(“liberal” zein “protektionista” gisa agertzen direla ere) nazio, Europa eta nazioarte mailan; beren oinarria herritar eta herri mugimendu antolatuen ekinaldia izan behar da, baita guztientzako eskubideen alde jokatzeko duen herri gobernuaren ekintza ere.

Haatik, European “ezker herrikoia” izena ematen zaion horrek erronkaren tamainari erantzun behar dio. Gaur arte tamalez, joera horretako indarrek ez daukate argitasunik, ez ausardiarik europar instituzioekiko harremanetan; beren proposamen politikoak ez dira aski erradikalak eta ausartak, eta herritarren babes eskasa dute, oinarritik indarrean dagoen ordenari aurre egiten dioten herri mugimenduekiko loturarik gabe daudelako. Toki, nazio eta nazioarte mailan eztabaidatzeko garaia da zein neurri eta ekinbide errealista eta erradikal erabaki behar diren beharrian sozialak benetan asetzeko, European bizi diren edo bertara etorri nahi duten emakume eta gizonen oinarritzko

eskubideak bermatzeko, bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko, botere demokratikoa konkistatzeko eta kapitalismoa gainditzeko hasteko, trantsizio ekologikoari ekinez.

Manifestu honetako atalburuak eztabaidarako proposamen gisa pentsatu dira; hausnarketa berehalako ekintzetara eta epe luzera begira egin da. EBko kide diren edo inguruan dauden estatuetakozko ezker sozial, sindikal eta politikoko kideen herri mugimenduari eta aktibistei zuzentzen zaizkie; eztabaidarako aurkezten diren diagnostiko eta proposamenak batera defenditu ditzakete herri mugimenduek eta herri gobernu osatu nahi duten ezkerreko indarrek. Testu laburtu honetan -zeina ez den agiri osoaren ordezkoa- lehenik Manifestuak izan duen ibilbidearen aurkezpen orokorra egiten da, eta gero atal bakoitza laburbiltzen da, eztabaidatzeko proposamenetan zentratuta eta ekintzara orientatuta.

1. atalburuan eztabaidarako proposatzen dira aipatutako helburuak iristeko eta aplikatzeko printzipio, estrategia eta tresnak. Proposatzen da galdera honi erantzutea: Zer egin behar du herri gobernu batek bere jardueraren lehen egun eta hiletan? Ondorengo atalburuek bezalaxe, nazio eta nazioarte mailan hartu beharreko neurriak -berehalakoak,

epe ertain eta luzekoak- bereizten eta zerrendatzen ditu. Hurrengo atalburuek gai hauen inguruko proposamenak jaso dituzte:

– Zor publikoa, zeinaren zati ilegítimo, ilegal eta jasangaitza deuseztatu behar den (**2. atalburua**);

– Bankuak sozializatu egin behar dira, dirua oinarrizko beharrianen eta ez etekinak pilatzearen mesedetan jarriko duen banku-zerbitzu publiko baten osagai izan daitezen (**3. atalburua**);

– Enplegua eta eskubide sozialak garatu eta berrasmatu egin behar dira bizi-baldintzak hobetzeko eta lan-bitarteko zein xedearen gaineko botere demokratikoa irabazteko (**4. atalburua**);

– Trantsizio energetiko eta ekologikoa, zeina premiaz gauzatu behar den ekosistemen suntsipena geldiarazteko eta bizi-molde iraunkor berriak asmatzeko (**5. atalburua**);

– Borroka feministak errotik demokratikoa den proiektuaren erdigunean kokatu behar dira eta transbertsalak izan behar dute borroka sozial eta politiko guztietan (**6. atalburua**);

– Hezkuntza eta osasuna oinarrizko eskubide gisa defenditu behar dira, guztientzat zerbitzu publiko gisa

Manifestu honetako atalburuak eztabaidarako proposamen gisa pentsatu dira; hausnarketa berehalako ekintzetara eta epe luzera begira egin da

garatu eta hedatu, pairatzen ari diren merkantilizazio eta hondamenaren aurka (**7. atalburua**);

– Nazioarteko politika eta migrazioak; praktikan hauen helburua izan behar da guztien oinarrizko eskubideak, herrien arteko bakea eta solidaritatea gauzatzeko (**8. atalburua**).

9. atalburuak, lehenengoak bezala, aipatutako helburuak lortzeko printzipio, estrategia eta tresnak proposatzen ditu. Bere helburua da honako galderari erantzutea: Zer egin europar instituzioek agertzen duten etsaitasuna eta ezartzen dituzten oztopoen aurrean? Desobediencia proposatzen du (lurralde maila guztietan), konfrontazioa (defentsa eta erasorako tresnak barne), haustura (hainbat modutara), eta erronka bat planteatzen du, aliantza eta prozesu eratzailak berreraikitzea EBren alternatiba izango diren forma demokratikoak zein lankidetzako demokratikoa finkatzeko.

***Herritar soberania
ezin da eraiki instituzio
politikoen egungo formei
eraso gabe, nazio, Europa
eta nazioarte mailan;
halaber, instituzio
demokratiko berriak sortu
behar dira
autoantolakuntzatik
abiatuta***

Gure eremu sozialak baztertu egin behar ditu, batetik, instituzio europarren erreforma instituzionalerako plan irrealistak, zeintzuk finean soilik status quoa indartzen duten, bestetik nazioak beren baitara biltzeko planak, zeintzuk kapitalismo nazionala besterik ez duten sendotzen. Herri gobernu izan nahi duen eta berehalako aldaketa sozialei ekin nahi dien ezkerreko indar batek hitza behar du eman EBko instituzioei ez diela obedituko, hauen funtzionamendu normala galarriziko duela, erakunde europarren eta enpresa handien eraso eta errepresalietatik defendituko dela, baita indarrean den ordena blokatzeko instituzio nazionalen saioretatik, eta saiatuko dela nazioarteko aliantza berriak eraikitzen, egungo EB barne eta kanpoko aktoreekin, lankidetzeta eta elkartasun forma berriak sortze aldera. Herritar burujabetza erai-

kitzeko bide bakarra dago, egungo instituzio politikoen formei ekitea, nazio, Europa eta nazioarte mailan, eta autoantolakuntzatik abiatuta instituzio demokratiko berriak sortzea. Horretarako jendeari sinestarazi behar zaio ezinbestekoa dela haustura politikoa borrokatzen ditugun politikak ezartzen dituzten nazio, Europa eta nazioarteko instituzioekin, eta finkatu egin behar direla aldaketa aurrerakoi eta erradikalaren helburuarekin bat datuzen sare, erresistentzia eta osagai politiko, asoziatibo eta sindikalen artean, Europa mailan pisua izatearren. Berehalakoan premiazkoa da indartu eta koordinatzea dauden desobediencia, haustura eta autoantolakuntza ekinaldiak, eta berriak hastea, sistemaz nazioarteko hedadura emanez, eta argi zuzenduz kapitalaren aldeko erakundeen aurka eta herrien arteko elkartasun forma berrien alde.

Europako instituzioekiko desobediencia eta haustura proposamen hauen xedea ez da, ondorioz, krisiarentzako eta protesta sozialarentzako irtenbide nazionalista bat bilatzea. Iraganean bezala, estrategia internazionalista hautatu behar da eta herrien federazio europar baten alde egin, zeina egungo integrazio ereduaren aurka kokatuko den, berau erabat enpresa handien interesen menpe baitago. Halaber,

etengabe kontinente mailan (eta haratago) kanpainak eta ekintza koordinatuak garatu behar dira honako gaitan: zorra, ekologia, etxebizitza eskubidea, migranteen eta aterpe bila dabiltzanen harrera, osasungintza, hezkuntza eta beste zerbitzu publikoak eta lanerako eskubidea. Borrokatu beharra dago honakoak lortzeko: zentral nuklearren itxiera, erregai fosilen erabilera zeharo murriztea, dumping eta paradisu fiskalen debekua, bankuen, aseguro-etxeen eta energia sektorearen sozializazioa, komun berreskurapena, emakume eta LGTBI pertsonen eskubideen defentsa eta hedapena, ondasun eta zerbitzu publikoen sustapena, prozesu eratzailleak abiaraztea, eta abar. Orain, inoiz baino areago, gobernuen bilakaera gero eta autoritarioagoari aurre egin behar zaio eta demokraziaren alde borrokatu bizitza sozialeko arlo guztietan.

***Bizitzeko modukoak,
bidezkoak eta
demokratikoak
izango diren eremuak
eta mundua berreraiki***

**ARGUDIA DAITEKE BIDE IRAULTZAILE HAU ERRA-
DIKALEGIA EDO ZAILEGIA DELA. HAATIK, BESTE
BIDEEK EZ DUTE IRTENBIDERIK ETA HORI DA
INDARREAN DEN ORDENA HAUSTEKO MODU BA-
KARRA, ORAIN ETA AHAL DEN LEKUAN, TOKIKO,
ESKUALDEKO, NAZIO ZEIN NAZIOARTEKO ERE-
MUAK BERRERAIKITZEKO ETA BIZITZEKO MO-
DUKOA, BIDEZKOA ETA DEMOKRATIKOA IZANGO
DEN MUNDU BATERANTZ.**

1. ATALBURUA

Herri gobernu baten lehen erabakiak

Zer egin beharko luke herri ezkerak Europako herrialde bateko gobernura iritsiz gero? Atalburu honetan hainbat neurri eta ekinbide komun proposatzen dugu -edozein kasutan abiatu beharrekoak- eta bi agertoki desberdin -bietako bat hautatu beharko litzateke- diruaren auziari buruz.

Berehalako erabakiak:

Boterera iritsi eta **lehen egunetik**, herri gobernu batek prest egon behar du dekretuak egiteko honako arloetan: banku-gordailuen bermea (diru zenbateko jakin bateraino); bankuen, aseguro-etxeen eta abarren kontrola; Banku Zentrala berehala gobernuaren agintepean jarriko da eta dirua jaulkitzeko baimena emango zaio; zor publikoaren

ordainaren luzamendua; kapitalen kontrola; gehiengoaren bizi-baldintzak berehala eta modu argian hobetzeko neurriak, esaterako gutxieneko soldataren eta erretiro-pentsioen igoera.

Lehentasuna izango da austeritatea amaitzea. Horretarako, herri gobernuak ezarri behar ditu hainbat neurri ekonomiko agenda sozialaren aplikazio egokia bermatzeko. Bereziki egin beharrekoak: Egonkortasun eta hazkunderako Itun europarrari aurre egin; zor publikoaren ordaina eten, luzamendua ezarri edo auditoretza herri-tarra eginez, Gizarte Segurantzaren funtsak, pensioen ordaina eta aurreztaile txikien gordailuak babestuko dituen ez ordaintze selektiboa

Lehentasuna, austeritatea amaiaraztea

erabakiz; kapitalen kontrola ezarri, ihesa eta zergen saihestea ekiditeko; behar-beharrezko ondasun eta zerbitzuen prezioen gaineko kontrola ezarri; banku- eta asegurosistemaren kontrola hartu; fiskalitatearen erreforma progresista abiatu (etekinei eta aberastasunari tasa handiagoak ezarritz), enpresa handien eta soldata oso handien zergapetzea lehenetsiz, inbertsio publikorako politika finantzatzeko; klase herrikoiak babestu diru-sarrerera publikoak aldian-aldia jaisten badira, krisia klase menperatzaileei ordainaraziz.

Herri gobernu batek hainbat neurri hartu behar du eskubide sozialei dagokienez: gutxieneko soldata eta erretiro-pentsioak gehitu; zerbitzu publiko unibertsal eta doakoak hedatu osasungintzan, hezkuntzan, haur eta adinekoen zaintzan, garraio kolektiboetan eta etxebizitza sozialean; kalitatezko lanpostuak sortu trantsizio ekologikoaren markoan izango den eredu produktiboaren aldatetaren baitan; lanaldia murrizteko lege-neurriak ezarri, eta horrekin batera lan zuzenbidearen erreforma progresista egin enpresetan jabeen boterea mugatzeko, lan-eremu guztien demokratizazioa lortze aldera.

Ekonomiako sektore estrategikoe-tan sozializazio programa zabala garatuko da, hau da, kapitalistak desjabetu, batik bat honako sektoreetan: finantzak (bankuak eta aseguroak), energia, telekomunikazioak eta industria farmazeutikoa; hauen jarduera biztanleriaren zerbitzura jarriko da. Herri gobernu batek neurri konkretuak hartu behar ditu erabat sozializatzeko hezkuntza, osasun eta zaintza sistemak, eta arlo pribatuaren esku dauden zerbitzuak (ospitaleak, eskolak, unibertsitateak, etab.).

Halako erabakiek Europar Batasuneko itun eta instituzioekiko desobedientzia esan nahi dutenez, ziurrenik hark erreakzionatuko du gauza ez daitezen saiatzeko.

***Herri gobernu batek
eskubide sozialak
berrezarri, hedatu eta
indartu behar ditu, eta
sozializazio programa
zabala garatu, batez ere
ekonomiako sektore es-
trategikoetan kapitalisten
desjabetzeari lehentasuna
emanez***

Diruaren (gaineko) soberania funtsezkoa da

Erreakzio erasokor horiei erantzuteko hobeto prestatzearen, ezkerreko herri gobernu batek berehala hasi behar du beste gobernu batzurekin harremanetan eta EBko beste herriengana jo bere politiken aldeko nazioarteko kanpainak abiatzeko, aldaketaren aldeko hainbat ekinaldi federatuz.

Diru-soberaniari buruzko hautuak:

EBko instituzioen erantzun erasokorrari aurre egiteko auzi nagusia diruaren soberania da. Honi buruz europar ezker herrikoian eztabaida ugari egiten da; ReCommonsEurope sareak hemen bi aipatuko ditu, eta bere partaideek deritzote hau eztabaidarako irekita dagoela.

1. agertokia:

Berehalako irteera Batasun ekonomiko eta monetariotik eta moneta nazional berriaren sorrera

Herri gobernuak egin beharreko bidean une garrantzitsua izango da BEM arbuizatzea, eta berarekin batera, haren egitura ekonomiko neoliberala. Periferiako herrialdeentzat, batez ere Europa hegoaldekoentzat, egungo BEMetik alde egitea ezinbestekoa da. Burdinezko kaiola horretatik irtetea beharrezkoa da politika jakin batzuk abiatzeko: ekonomia garatu, ordainsari egokia duen enplegua sortuz langabezia murriztu eta pobrezia arintzeko.

Irtenbideak ez du zertan prozesu erraza izan, baina gaur asko dakigu sor daitezkeen arazoak ahalik gehien mugatzeko moduaren inguruan. Erdiguneko herrialdeentzat BEMaren auzia askoz konplexuagoa da, diru-batasuna goitik behera eraitsi eta dispositibo alternatiboak abian jarri beharko baitira. BEMaren ondorengoa inola ere ez litzateke izan beharko truke-merkatuetan herrialdeen arteko lehia irekia. Europak behar du BEMarekin zerikusirik ez duen truke-tasak egonkortzeko sistema bat eta herrialdeen arteko ordainketa sistema bat. Klase herrikoiei eragingo balie, BEMaren desegitea urrats garrantzitsua izan liteke EBko erregimen neoliberalaren aurka.

2. agertokia:

Moneta alternatiboa BEMean zirkuitulaburra eragiteko

Herri gobernu batek eratu lezake diru-agintaritza bat berehala euroaren alternatiba litzatekeen moneta jaulkitzeko ahalmena lukeena, edozein dela ere azken erabakia (BEMen jarraitzea ala diru nazionalera itzultzea). Moneta nazional alternatibo baten abantaila politikoa, baita bere funtzioa, hasieran osagarria besterik ez bada ere, izango litzateke herri gobernuari aukera

***BEMetik ateratzeak edo
hari zirkuitulaburra
eragiteak politika
ekonomiko konkretuak
abiarazteko aukera
emango du, eta horrela
Europar elkartasunezko
benetako oinarri bat
sortuko da***

emango liokeela –eurotik berehala irten gabe– berehalako hainbat erronkari erantzuteko eta EBko instituzioen errepresalietatik aurretiaz defenditzeko, haiek indarrean diren itunetako murrizketen alde egingo baitute. Diru osagarriak bitarteko xede aringarri bat izan dezake, maniobra tarte handia eskaintzen duelarik. Gobernuak onartuko du zergak diru horrekin ordaintzea, eta berau hainbat zerbitzu ordaintzeko modua izango da ere, zerbitzu publikoetako langileen soldata, pensio eta gizarte-prestazioen igoerak ordaintzeko. Moneta berri honen balioa, hasieran bederen, euroaren parekoa izango da. Horrela, diru osagarria BEMen botere loteslean zirkuitulaburra eragiteko estrategia baten baitan izango da, europar itunetik haustura politika gauzatu eta, azkenean, moneta-soberania erabat berreskuratzeko aukera emanaz, BEMeko irteera barne, beharrezkoa balitz.

Nazioarteko eremuko ekinbideak:

BEMetik alde egin edo hari zirkuitulaburra eragitea, eta inondik ere Europar Batasunetik irtetea, kapitalaren aurka langileen aldeko politikak garatzeko bidea bada (edozein dela ere hauen nazionalitatea), ez da ikuspegi nazionalista, eta ez du esan nahi Europar estatuen arteko lehia eta gerrara itzultzerik. Aitzitik, adieraziko du internazionalismo erradikal bat sortu dela, zeinaren oinarria izango den EBren egitura disfuntzional eta hegemonikoak arbuizaten dituzten herritarren ageriko borondatea. Haustura horrek, herritarren aldeko indar-erlazio berria adieraziko lukenez, aukera emango du europar mailako elkartasun oinarri bat sortuko duten politika ekonomikoak sustatzeko, horrela herritarren burujabetzari eta eskubide demokratikoei eduki berria emanaz, egungo mugen barnean edota haietatik haratago. Honen Europar estatuen arteko aliantza berrietara eramango gaitu, are nazioz gaindiko eremu eredu alternatibo, demokratiko eta solidario batera, zeina herrien arteko lan-kidetzan eta internazionalismoan oinarrituko den, logika kapitalistatik at.



2. ATALBURUA

Bankuak

*Bankuen sektorea
sozializatzea beharrezko
baldintza da
eredu soziala
aldatzeko bada*

Dirua, aurrezkia, kreditua eta ordainketa sistema, interes orokorrerako baliagarri diren heinean, halabeharrez zerbitzu publikoaren logikaren baitan izan behar dira (eta ondorioz zerbitzu publiko baten baitan erabili eta zuzendu behar dira). Banketxeen sozializazioa (hau da, banku-jardueraren monopolio publikoa eta kudeaketa langileen esku izatea, erabiltzaileen, herri-elkarte eta administrazioetako ordezkarien parte hartzearekin) beharrezko baldintza da eredu soziala aldatzeko. Honelako neurri bat kapitalismoa-

rentzat zinezko mehatxua da, eta ondorioz gauzatu ahal izateko herritarren babesa ezinbesteko baldintza izango da.

Herri gobernu batek berehala hartu beharreko erabakiak:

BEHIN BOTERERA IRITSITA MANIOBRA-TARTEA IZATEKO ETA FINANTZAK ITOTZEKO ARRISKUAK MUGATZEARREN, herri gobernuak kapital mugimenduen kontrola ezarri behar du. Orobat, berehala finkatu behar du **BANKUEN ARAUTZE BERRI BAT**, bereziki honakoa eginez: bankuen bilanean funts propioen igoera handia, gutxienekoa %20 delarik; bankuak derrigortu bilanetik kanpoko beren konpromisoak onbideratzera; banku komertzialak eta inbertsio-bankuak bereizi eta kreditu-harremanak debekatu era desberdineko erakundeen artean; halaber, galarazi egingo dira titulizatzea, epe laburreko operazioak, espekulazioa, deribatuen

finantza-merkatuak, bankuen loturak itzaleko bankuekin eta paradisu fiskal zein judizialekin, baita gale-ren sozializazioa ere; banku-sekretua amaituko da; finantza-delitu eta -krimenak eragin dituzten arduradunen jazarpen sistematikoa; akziodun handien benetako finantzardura ezartzea, batik bat kiebrak gertatzen direnean; bankuen gaineko zergen igoera, herrialdearen zerga-esfortzuan parte hartzera derrigortzeko. Herri gobernuak ere bere Banku Zentralaren kontrola hartu behar du berriz, bere diru-politikaren eta finantzatzeko baldintzen kontrola berreskuratzeko helburuarekin.

Banku-sistema pribatuaren sozializaziorantz:

Hala ezker herrikoiairen baitan nola **ReCommonsEurope** sarean, jarraitu egin behar da eztabaidan posizio bateratu batera iristeko. Uneotan bi posizio daude debatean: **BANKU-SEKTOREAREN ZATI BAT SOZIALIZATU ETA POLO PUBLIKO BAT SORTU SEKTOREAREN ERABATEKO SOZIALIZAZIOAREN BIDEAN (1. AGERTOKIA), EDO ZUZENEAN BANKU-SISTEMA GUZTIA OSORIK SOZIALIZATU, INBERTSIO ETA FINANTZA BANKUAK ETA ASEGURUAK INTEGRATUZ (2. AGERTOKIA).** Nazionalizazio kontzeptua nahas daiteke estatalizazioarekin eta ban-

Maniobra-tartea izateko eta finantzak itotzeko arriskuak mugatzearren, herri gobernuak bankuen arautze berri bat eta Banku Zentralaren kontrola berreskuratu behar du

kuen kontrola zuzendaritza-eliteen aldetik bereganatzearekin, kapitalismo nazional baten baitan; haatik, sozializazioak argiago adierazten du xedea kolektibizazioa dela, zinetan langileek duten erabakitze-ko ahalmena eta kontrola, erabiltzaileen, elkarteetako ordezkarien eta agintari politikoen parte hartzearekin. Herri gobernuak kalteordaina eman beharko lieke akziodun txikiei (bankuen erabakietan parte hartzen ez dutenei), eta erabaki lezake euro sinboliko bat besterik ez itzultzea akziodun handiei, bankuen erreskateak izan duen kostua hauen ondaretik berreskuratuz.

*Sozializazio kontzeptuak
argiago adierazten du
xedea kolektibizazioa dela,
zeinetan langileek duten
erabakitzeo ahalmena eta
kontrola, erabiltzaileen
parte hartzearekin*

1. agertokia:

Bankuen polo publikoa

Herri gobernuia sostengatzen duten indar guztiak ez baletoz bat banku-sektorea berehala sozializatzeko hautuarekin, **BANKUEN POLO PUBLIKOA ERDIBIDEKO IRTENBIDE BAT IZAN LITEKE, ZEINAK GOBERNUARI FINANTZA-BIDEAK EMANGO LIZKIOKEEN BERE POLITIKAK EGITEKO.**

Gobernantzari dagokionez, polo publiko horretan banku bakoitzak bere funtzionatzeko autonomia eta zuzendaritza izango luke. Alabaina, erakundeon ekintza zuzendaritza nazional baten baitan garatuko litzateke, zeinak osotasunaren koherentzia bermatuko lukeen. Koordinazio nazional hori osatuko dute nazio mailako eta tokiko agintari politikoek, bankuetako arduradunek eta jendarte zibileko orde-

kariak, batik bat sindikatuak eta elkarteak. Banku-sistema pribatuak dirauen artean, hiru adarreko banku-sistema bat agertuko da: **FINANTZA-POLO PUBLIKOA, SOZIALIZATUTAKO BANKUEK ETA BESTE ERAKUNDE PUBLIKOEN OSATUA, BANKU PRIBATUAK ETA POLO MUTUALISTA.** Gainera, sektoreko langileen aldetik finantzatu beharreko proiektuei buruzko informazio eta beto eskubidea ezar daiteke. Sozializazioak goitik behera aldatuko luke administrazio kontseiluen osiera eta hauetako kideak izendatzeko modua. Polo publikoan ez dauden bankuen kasuan, bankuen lege batek definituko ditu beren eginkizunak, baita administrazio kontseiluen eta zuzendaritzen osiera eta hauetako kideak izendatzeko modua ere, edozein dela ere haien estatus juridikoa.

2. agertokia:

Banku-sektorearen erabateko sozializazioa

Banku-sektorearen erabateko sozializazioak esan nahi du kalteordainik gabe (edo kalteordain sinboliko batekin) desjabetzea akziodun handiak (akziodun txikiei, aldiz, kalteordaina emango zaie): arlo publikoaren esku egongo da banku-jardueraren monopolioa (salbuespena: maila txikiko banku kooperatiboen sektorea badago, zeina



sektore publikoaren arau berdinen pean egongo den); eta karta bat definituko da –herritarren parte hartzearekin– lortu beharreko helburu eta xedeak zehazteko; kartak aurrezki, kreditu eta inbertsio zerbitzu publikoa jarriko du planifikazio demokratiko prozesu batek definitutako lehentasunen zerbitzura. **BANKU-SEKTOREAREN ETA ASEGURUEN SOZIALIZAZIOAK ETA HAIEK ZERBITZU PUBLIKOETAN INTEGRATZEAK HERRITARRAK ETA BOTERE PUBLIKOAK FINANTZA-MERKATUETATIK AT UTZIKO DITU**; herritar eta botere publikoen proiektuak finantzatu dira; banku-jarduera interes orokorrerako izango da, eta bere misioa izango da, besteak beste, trantsizioa bideratzea, ekonomia kapitalista, produktibista eta kaltegarritik ekonomia sozial, iraunkor eta ekologikora.

BANKU-SEKTOREAREN SOZIALIZAZIOAREKIN BANKU PRIBATUAK DESAGERTU EGINGO LIRATEKE: desjabetu ondoren, langileak banku

eta aseguruaren arlo publikoan integratuko lirateke, euren antzinatasuna eta soldatak errespetatu eta lan-baldintzak hobetuta. Tokiko agentziek arriskurik gabeko kredituak emango dizkiete banakoei, familiei, tokiko ETE eta egiturei, elkarteei, udalei eta herri-erakundeiei. **FINANTZATU BEHARREKO TOKIKO PROIEKTUAK ERA DEMOKRATIKOAN DEFINITUKO DIRA, AHAL DEN HERRITARREN PARTE HARTZE HANDIENAREKIN.**

Edozein dela ere hautatzen den agertokia, ezinbestekoa da banku zentralaren kontrola berreskuratzea.

3. ATALBURUA

Zorra

*Zalantzan jarri
finantza-erakunde
pribatuak eta kapitalaren
metatze pribatua
indartzeko baliatu den zor
publikoaren zilegitasuna*

Herri gobernu orok **INPUGNATU EGIN BEHAR DU FINANTZ-ERAKUNDE PRIBATUAK ETA KAPITALAREN METATZE PRIBATUA INDARTZEKO BALIATU DEN ZOR PUBLIKOAREN LEGITIMITATEA**, eta ukatu egin behar du aurrekontu-orekaren printzipioa. Prozesu hau hasiko da zorraren ordaina etenez eta kapitalen kontrola ezarriz auditoretzari bide emateko; hau gardentasun eta soberania ariketa bat da, zeinak gobernu berriari aukera emango dion erabakitzeke zorraren zein zati den ilegimitoa eta

beraz arbuiatu edo alde bakarretik berregituratu beharko litzatekeen. Honek hartzekodunekin sortuko duen gatazka kontutuan izanik, oso garrantzitsua izango da prozesu hau egiterakoan herritarren aldetik nahikoa babesa izatea.

*Zor publikoaren zilegitasuna
zalantzan jarri*

EBko kide diren estatuen zor publikoaren zilegitasuna zalantzan jarri behar da. Zorraren zenbatekoa zeharo murriztu beharra ez da soilik altxor publikoarentzat interesak ordaintzea zama itzela delako; gainera, **ORDAINTZEKO BETEBEHARRETARA EGOKITZEKO NAZIOZ GAINDIKO ERAKUNDEEK EZARRITAKO AUSTERITATE POLITIKEK ORO HAR ONDORIO LAZGARRIAK IZATEN DITUZTE HERRIALDE ZORDUNENTZAT. DOIKUNTZA POLITIKA HAUEK BEREHALA BERTAN BEHERA UTZI BEHAR DITU** programa aurrerakoia proposatu nahi dituen edozein ez-

kerreko gobernuk. Litekeena da bere hartzekodunei aurre egin eta austeritatea amaitu nahi duen gobernu progresista bat boterera iristea merkatuan turbulentzia gogorrak gertatzen ari diren unean, Grezian 2015ean gertatu zen bezala. Hartara, kapitalen kontrola ezartzea premiazkoa da herrialdetik kapitalen ihes masiboa ekiditeko (kapitalistak beren interesak galtzeko beldurrez daudelako, edota zuzenean gobernu aurrerakoiaren ahalegina sabotatu nahi dutelako), horrela ezegonkortasuna eta bankuen gainbehera eragozteko.

Zor publikoaren auditoretza, zor publiko ilegítimoen aurkako alde bakarreko erabakiak hartzeko tresna

ZORRAREN AUDITORETZA HERRI-TARRA EGIN BEHAR DA BIZTANLE-RIARI EGOERA AZALDU ETA HAREN BABESA LORTZEKO ZOR PUBLIKOAREN KARGA KENTZEKO ALDE BAKARREKO NEURRIETARAKO, ESATERAKO ORDAINEN ETENA, BERREGITURATZEA EDO ARBUIOA. Zorren kontuak plazaratu behar dira, azterketa publikoa egin eta kontrol demokratikoa duen analisiak argitu beharko du zein zor ez den kitatu behar. **PRINTZIPIO KONTUA DA ZOR GORROTAGARRI, ILEGITIMO, ILEGAL EDO SOSTENGAEZINAK (GREZIAKO ZOR PUBLIKOARRI BURUZKO EGIAREN BATZORDEAK EZARRITAKO DEFINIZIOEN ARABERA) EZ ORDAINTZEA.**

Zor publikoaren ordaina gauzatzeko hartzekodunek ezartzen dituzten austeritate politikek ondorio lazgarriak izan ohi dituzte herrialde zordunentzat. Politika hauek martxan jartzea berehala geldiarazi behar dira

EZKER HERRIKOIEKO GOBERNUK ZORRAREN AUDITORETZAN SARTU BEHAR DITUZTE BEREN ESTATUEK BESTE NAZIOEKIKO DITUZTEN KREDITUAK. Zilegi ez direnak, ilegalak, gorrotagarriak edota sostengaezinak deuseztatu egin behar dira.

Zor publikoak deuseztatzen direnean titulu publikoetan inbertitu duten aurreztaile txikiak babestuko dira, baita soldatapeko edo pentsiodunak ere, kudeaketa erakunde edo organismoek beren erretiro, langabezia, gaixotasun edo familiar buruzko gizarte-kotizazioen zati bat horrelako tituluetan kokatu dituzten kasuetan.



*Zor gorrotagarri,
ilegitimo, ilegal,
justifikaezinak
ez dira ordaindu behar*

Zor pribatuaren murrizketa

EZKERREKO GOBERNUAK ZOR PRIBATUA MURRIZTEKO PROGRAMA BAT APLIKATU BEHARKO DU, banako edo familien zorrak gutxituz edo deuseztatuz, haien bolumena enpleguaren, soldaten, zerbitzu publikoen eta abarren aurkako eraso neoliberalak puztu duenean. Premiazko neurri horiekin batera beharrezko izango dira politika horiei aurre egiteko erabakiak ere.

4. ATALBURUA

Lana, enplegua eta eskubide sozialak

BEHARREZKOAK DA ENPLEGU-ETA GIZARTE - POLITIKAK ZEHARO ALDATZEA ENPLEGU DUINA ETA EGOKIA BERMATZEKO, BAITA GUZTIENTZAKO DEMOKRAZIA EKONOMIKORAKO ESKUBIDEA ERE.

Mugimendu sozial eta herritarren ekinaldiak:

Mugimendu sozial eta herritarren aldarrikapen eta ekinaldiak logika neoliberala gainditzeko aurrebal-dintza dira. Ekinaldi horien helburuak honakoak izan beharko lirarteke: indargabetu eta atzera eragin azken urteetako eskubide sozialen degradazioa eta garatu den negoziazio kolektiboaren eraispena; erreferentziazko gutxieneko soldataren ezarpena; lanaldia murriztu, 32 orduko lan astearen bidean, eta etxebizitza eskubidea bermatuz; migratzeko pertsona orori zorzaion eskubidea, eta herritartasun

Eskubide sozialen degradazio prozesua geldiarazi eta atzera eragiten saiatzen diren herri mugimenduen ekinaldiak indartu

betearen bermea; enpresa handien, batik bat multinazionalen, boterea desegitea, haiek sozializatuz eta araubide publikoa ezarriz; eredu ekonomikoaren birmoldaketa sozial, ekologiko, demokratiko eta feminista.

Europar
“konbergentzia”
politiken logikak
inposatutako
mekanismoak baztertu eta
ekonomia demokratizatu

Herri gobernu baten
berehalako erabakiak:

Herri gobernu batek berehala erabakiak hartu beharko lituzke enpleguaren eta negoziazio kolektiboaren arloan galdutako eskubideak berrezartzeko, langile-klasearen eta sindikatuen boterea areagotuz; erretiro pentsioei ezarritako murrizketak indargabetu eta zenbatekoak gehitu; gauza bera langabezia prestazioei eta beste onura sozialei dagokienez; arrazoi ekonomiko, sozial edo politikoengatik migratzera behartutako guztiei eskubide osoak bermatu; merkataritza itunen “be-launaldi berria” bertan behera utzi eta haiei aurre egin.

Herri gobernuak gero neurriak hartu beharko lituzkete honako eremuetan: asteko lanaldia 35 ordura murriztu, areago murrizteko bidean, soldata jaitsierarik gabe; gutxieneko soldataren igoera; lurralde- eta sektore-eremuetan lan-hitzarmenak hobetzeko dauden eragozpenak bertan behera utzi; etekinak dituzten enpresetan

kaleratzeak debekatu; enpleguaren dagoen genero desberdintasuna amaiarazi, kualifikazio bera duten emakume eta gizonen artean benetako soldata berdintasuna gauzatu; lanaldi partzialeko enpleguetan ordaindutako gutxieneko ordu kopuru egokia ezarri; lantokien demokratizazioa eta langileen parte hartze handiagoa enpresen erabakiak hartzeko prozesuetan; gizarte-babesa areagotu, eta gehitu aberastasun nazionaletik osasunera, hezkuntzara, gizarte-prestaziotara eta abarretara bideratzen den zatia; lan munduan esperientzia demokratikoak sustatu: kooperatibak, ondasun eta zerbitzuen produkzio auto-antolatua, ekonomia sozial eta solidarioa, etab.; eskubide sozial berriak sortu, bizimodu duina posible egiteko: etxebizitza publikoa, lan eskubidea (oinarrizko errenta baino nahiago); menpekotasun bereziko egoerak aitortu zaintza eta laguntza sistema publiko, unibertsal eta doako baten bidez; haurtzaindegi publikoetan doako lekuak bermatu; “autonomia-laguntza” (edo ikasleen soldata) bat sortu gazteei ikasketak ordaintzeko aukera ematearren, lan merkatuaren presioak saihestuz, etab. Neurri hauek ezarrita kalitate handiko enpleguak gehituko lirake jendar-teak behar dituen eta ingurumenaren ikuspuntutik iraunkorrak diren sektore ekonomikoetan.

Herri gobernu baten
epe ertaineko neurriak:

Epe ertainean herri gobernu baten erabaki sozial eta ekonomikoak lehenetsunez izan beharko lirateke Europa mailan “konbergentzia” politiken logikak inposatutako mekanismoak baztertzea (aurrekontu irizpideak, gastu publikoa mugatzea, etab.) eta ekonomia demokratizatzea: langileek duten eskubidea euren lanaren baldintzak eta antolakuntza erabakitzeke, baita beren jardueraren bitarteko eta helburuak ere, lan legeek bermatutako eskubide sozial eta demokratiko gisa aitortu behar da. Honek eskatzen du pertsona orori aitortzea lanerako, hezkuntzarako eta etxebizitza izateko eskubide alienaezina eta bes-tela taxutzea lanaren funtzioa, erakunde demokratikoa bihurtuz.

***Nazioarteko
eremuan lanaren
eraldatze sozial,
demokratiko, ekologiko
eta feministaren aldeko
ekinbideak sustatu***

Nazioarteko ekinbideak
epe ertainera:

Nazioarteko eremuan sistemaz sustatu behar ditugu lanaren eraldatze sozial, demokratiko, ekologiko eta feministaren aldeko ekinbideak. Honek esan nahi du instituzio politiko eta sozial guztiak bideratu behar direla ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko moduaren aldaketara, jendarte eta ingurumen ikuspegitik beharrezkoak diren enpleguak bertokiratzera eta lan baldintza justu eta duinak ezartzera. Gainera, mundializazioaren arauak goitik behera eralda daitezzen eragin behar dugu, batik bat “merkataritza akordioak” hautsiz –hauek izatez kapital handiaren eta multinazionalen menperatze sistemak izanik–, lehenetsiz giza eskubideak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak.

Europar eremuko auzi estrategikoei dagokienez, lehentasuna izan beharko lirateke greba transnaziionalak, kolektiboki aurre egiteko multinazionalen botereari klase-borroka ikuspegi batekin; Europa edo nazioarte mailako kanpainak, sindikatuek edo herri mugimenduek bultzatuak, aipatutako erronkei buruz: Europar Batasunak izan dituen eragin ezin okerragoak enpleguan, desberdintasunean eta eskubide sozialetan; aurkakotasuna, desobediencia eta borroka langileen eta herritarren eskubide sozialen aplikazioa eragozten duten kapitalismo neoliberalaren erakunde guztien kontra, Europar Batasuna barne.



5. ATALBURUA

Ekosozialismoa eta energia trantsizioa

Ingurumenarekiko konpromiso koherentea ezin da agortu gizate-riaren eta naturaren arteko lotura modu generikoan aldatzearekin; era berean berdintasun soziala galdegin behar da, beharizan sozial nagusiak asetzen eta klase xeheen babesa bermatuz: kontua da zaintzea inguru jasangarri bat (batik bat berotegi efektuko gasen isuriak mundu mailan 2030eraino %58 eta 2050eraino %100 murriztuz) eta justizia soziala, berdintasun soziala produktibismotik at iristea. **HOTS, DESAZKUNDE PROGRAMA ANTIPRODUKTIBISTA, EKO-SOZIALISTA ETA ANTIKAPITALISTA BEHAR DUGU.** Europar honek eskatzen du erabat haustea Europar Batasun kapitalistarekin eta bere “klima politikekin”, batik bat, isuri-baimen, ziurtagiri berde eta bonuei dago-kienez, eta oro har Europar Batzor-

*Desazkunde
programa
antiproduktibista,
ekosozialista eta
antikapitalista
behar dugu*

dean sustatu nahi duen “kapitalismo berdea”rekin.

Berehalako ekinbide herritarrak:

Deskribatutako krisiari aurre egitekotan aldaketak egiteko aukera bazarra da babes sozial zabala izatea, informazio egokia duten herritarrekin, prest daudenak egin beharreko eraldaketak sustatzeko eta erakunde politikoekin batera haien

*Premiaz behar dugu
energia sektorearen
gaineko kontrol publikoa,
hots, sektore honetako
enpresen desjabetzea eta
energiaren sektore publiko
eta sozializatu batera
transferitzea*

ardura hartzeko. Horregatik beharrezkoa da bultzatzea, babestea eta garatzea trantsizio sozio-ekologikoranzko herritar ekinbideak (zerbitzu publikoen kooperatibak, kontsumo agroekologikoa, birziklatzea, zaharberritze ekologikoa, birmoldaketa prozesuan dauden sektoreak, etab.). Halaber, sustatu behar da kontzientzia hartzea eta auto-antolatutako ekinbideak, eskala handian erreproduzituko diren esperientzien laborategi gisa.

Herri gobernu batek hartu beharreko premiazko erabakiak:

Gehiengoaren aldeko programa demokratikoa bermatzekotan premiaz behar dugu **ENERGIA SEKTOREAREN KONTROL PUBLIKOA, HOTS, SEKTORE HONETAKO ENPRES HANDIAK DESJABETZEA ETA ENERGIAREN POLO PUBLIKO ETA SOZIALIZATU BATERA TRANSFERITZEA**. Beharrezkoa da ere produkzio-bitartekoan eta sektore guztietan espero

diren helburuen gaineko kontrol herritarra ezartzea; kontrol hau eragindako beharrezko eremu eta eratik ahalik gertuen dauden pertsonak hartu behar dute beren gain. Gainera, estatu eremuan kontrol demokratikoa ezarri behar dugu faktore nagusietan, esaterako azpiegiturak, eragile ekonomikoak, finantza-mekanismoak, plangintza estrategikoa eta sektore elkartuak. Sektore publikoak trantsizioaren katalizatzaile gisa duen eginkizuna bete eta merkatu kapitalistaren presiorik gabeko finantziarioa jaso ahal dezan, diru-autonomia behar du. Horretarako Europako moneta-batasunaren arauak baztertu eta ordezkatu egin behar dira beste finantza-lankidetzaren forma batzurekin. Eredu bat sustatu behar dugu tokiko ekoizpenaren aldekoa, eragin sozioekologiko orokorra murriztuko duena eta toki mailan aberastasuna dakarrena, baita BPGa hazten ez bada ere.

Ingurumen arazoaren tamainak eraldaketa sozioekonomiko itzelak eskatzen ditu, epe oso laburrean. Aipatutako ekintzez gainera, gobernuak premiaz salbuespeneko mekanismoak jarri behar ditu martxan **NATURA ETA BIODIBERTSITATEA ZAINTZEOA** berehalako aldaketa erradikalak eragiteko, batik bat urbanizatze prozesuaren eta lurren okupazioaren kontrola; kontaminazioa eta ziklo bio-geomikoen aldaketak murrizteko araudi

zorrotzagoak; basoberritzea eta agroforestazioaren garapena. Premiazko neurriak ere energiaren eta klimaren eremura hedatu behar dira, batik bat energia sektoreko produkzio-bitartekoen, azpiegitura, operadore eta prezio zein tasak finkatzeko sistemak nazionalizatu/sozializatzeko plan baten bidez; energia-finantziario plana, lehenetsun sozial eta aberastasuna birbanatzeko irizpideekin; energia-sektore sozializatu, bertokiratu eta jabego publikoa duena garatu, energia-iturri berriztagarri eta garbiak darrabiltzana; haustura hidrauliko tekniken debekua, zentral nuklearren eta erregai fosilekiko zentral termikoen itxiera; agroekologiaren sustapena, pestizida zein gai kimikorik gabea.

Herri gobernu batentzako helburu konkretuak:

Klase xeheak babesteko eta iraunkortasun ekologikoa bermatzeko konpromisoa duen herri gobernu batek sektore ekonomiko nagusiak berdefinitu behar ditu. Hauek dira garatu beharreko neurri batzuk: epe luzeko helburu eta estrategiak ezarri, zeintzuk Konstituzioan edo legeetan jasoko diren; trantsizio ekosozialistarako inbertsio eta finantziario bideak sortu (bankuen sozializazioa eraginez, baina baita zor publiko ilegítimo, ilegal, gorrotagarri eta jasangaitza deuseztatuz ere); oinarritzeko sistema ekologikoak zaindu, esaterako lurzo-

rua, ur-lasterrak, geruza freatikokoak, kostaldeak eta itsasoak, ondasun komunen kudeaketa publikoa indartuz; nekazari-ekonomiako unitateetan produkzio ekologikoak dituen oztopo juridikoak kendu; zerbitzu publikoak garatu, hiri zein landa eremuko biztanle guztiek erraz iristeko moduan; landa-eremuen sustapena eta hiriguneen arintzea, oraindik ere “birjinak” diren aldeak zainduz; hirien buruaskitasuna areagotu; etxebizitzak isolaratzeko plan handi bat antolatu, biztanle guztiek bizileku duina izateko eskubidearen baitan; energia kudeatzeko eredu berria garatu, prezioen kontrola bermatuz; estrategia bati ekin zeinak aukera emango duen tokiko gatazka ekologikoak aurreikustea, birmoldaketa eta birtokiratze ekonomikoaren markoan irtenbide demokratikoak sustatuz.

Nazioarteko ekinbideak:

Herrialde bakoitzetik erronka ekologikoei aurre egiten saiatzea ezinbestekoa da, baina bideraezina, nazioarteko estrategiarik gabe. Batik bat, Europar Batasuneko arautegiak aldatu behar dira. Benetako kontrol publikoa lortzeko behar dugu, baitetik, lehiaren arau europarrak baztertzea, baita merkatu publikoen inguruko legeak, egonkortasunaren arau europarra, defizit publikoari ezarritako mugak nahiz indarrean diren diru-murrizketak ere; bestalde,

***Estatu mailan erronka
sozioekologikoei eta
energetikoei aurre egiteko
saioa ezinbestekoa da,
baina ezinezkoa, ekinbide
horiek nazioarteko
neurriekin batera
ez badoaz***

klausulak ezarri behar dira enpresen eta inbertitzaileen esku hartzea eragozteko bioaniztasunari buruzko europar estrategietan, batez ere osasun publikoaren arloan (airearen kontaminazioa murriztea, pestizida patogeno eta kontaminatzaileen debekua, etab.); aldeanitzeko itunak indargabetu (esaterako, Energiaren Karta, “truke libreko” akordioetan ezarritako desadostasunak bideratzeko auzitegi pribatuekiko mekanismoak, etab.), baita herri gobernua finkatutako helburuen kontrako itun guztiak ere.

Europar eta mundu guztian trantsizio ekosozialistarako plan erradikal bat behar dugu. Berotegi-efektuko gasen isuria zeharo murrizteko ahaleginak areagotu egin behar dira munduko ipar hemisferioko herrialdeetan, hegoaldeko herrialdeei zor zaien garatzeko lehentasunezko eskubidea bermatzeko, gizateriak energia ez berriztagarrietatik erabil dezakeena baliatuz,

orain hasi eta energia-trantsizioa mundu mailan ziurtatu arte. Kapitalismoa gaintzea ez da soilik berdintasun eta demokrazia kontua; biziraupena eta gizateria bizi deneko ekosistemak berritzea ere jokoan daude. Beraz, *sine qua non* baldintzak dira egungo erakunde eta hitzarmen europarrekin erabat haustea, eta nazioarteko lankidetzako beste forma batzuk ezartzea.

6. ATALBURUA

Feminismoa

Posizio politiko feminista koherentea izatekotan aurre egin behar diegu era guztietako esplotazio, sexismo, patriarkatuaren adierazpen eta bortizkeria orori, zeintzuk eragiten duten pertsona esplotatu eta ahulak batzuk besteen kontra jartzea, kapitalak gure borroka komunak zatikatzen dituelarik, lasai geratzen den artean. Gure indarra honako borroketan eta kolektiboen elkartasunean datza: zapalduak, emakumeak, LGTBIQ+ komunitateak, gutxiengoak, arrazismoaren biktimak eta merkatuaren, kapitalaren zein austeritate neurriak inposatzen dituen Europar Batasunaren tiraniaren aurkako langileak.

Herri gobernuek mugimendu horien borroka sintetizatu beharko dituzte eta berdintasun formalaren eskakizunetatik harago joan, lanaren banaketak eta erreproduzio sozialak dituen genero-oinarriak zalantzan

***Gure indarra datza
zapalduen borroketan eta
elkartasunean; borroka
hauek sintetizatuko
dituzten gobernuak
behar ditugu***

jarriz, baita haiek eremu publikoan pairatzen duten bazterketa ere. Erreproduzio sozialeko eginkizunak

*Emakumeei beren bizitzari
buruz askatasunez
erabakitzeko aukera
emanez, arlo publikoa
palanka izango da egitura
sozialean aldaketa
erradikalagoak eragiteko*

sozializatu egin behar dira¹, esaterako inbertsio handiak eginez haurtzaindegi komunaletan, garbitegi eta jantoki kolektiboetan, zerbitzu horiek doakoak izan daitezten. Horrela sortuko dira baldintzak emakumeak eta gizonezkoak berdintasunez eta pareko soldatekin integra daitezten sektore ekonomiko guztietan. Emakumeen etxeko lan menpekoarekin amaitzeko baldintzak sortu behar dira, eta lanaren genero-banaketa zentzu berdinkoi eta askatzailean eraldatu. Trantsizio aldiaren kuota sistema bat ezarri behar da ziurtatzeko emakumeak, batik batik, immigrante direnak, hautatzen dituzten

¹ «Erreproduktzio sozialaz» hitz egitean lan indarra existitzeko baldintzak ahalbidetzen dituen prozesu sozial eta giza harremanez osatutako sare konplexuaz ari gara (hezkontzaz, zaintzaz, elikaduraz...). Sare hori nagusiki familien, eta ia beti emakumeen ardurapean dago inbisibilizatua, feminismo marxistako autoreek adierazten duten bezala. Ikusi, adibidez, Nancy Fraser, Ciniza Arruzza, Tithi Bhattacharya, Clara Ramas, Feminismoa %99aren alde, Txalaparta, 2019, edo Tithi Bhattacharya (koord.), Social Reproduction Theory. Remapping Class, Recentering Oppression, Pluto Press, 2017.

sektoreetan -batez ere sektore publikoan- behar bezala ordezkaturik daudela. Arlo publikoan malgutasun moduak sortu nahi ditugu, baina ez kapitalaren interesen zerbitzurako, honek familietan lan-indarraren erreproduktzio merkea lortzen baitu emakumeen lepotik. Emakumeek ama izateko aukera askatasunez hautatu behar dute, eta amatasun baimenak hartu ala ez, ikasketak bat egin ala ez, eta euren bizitzari buruz edota lanean zein jendartearen lortu nahi duten garapen pertsonala erabakitzeko aukera izan. Arlo publiko sozializatua palanka izango da egitura sozialaren goitik beherako aldaketak eragiteko. Gure helburua da askapen mugimenduen borroketan sartzea erreproduktzio soziala oinarritik eraldatzeko, mugimendu autoantolatuen ekinbideen bitartez.

BERAZ, HERRI MUGIMENDUEK LAN EGIN BEHAR DUTE KANPAINA ETA MOBILIZAZIO BIDEZ guztien erabateko berdintasuna lortzeko, genero, klase, arraza edo adinaren eraikuntza sozialetan oinarria duten bortizkeria eta diskriminazio modu oro zigortzeko; immigrazioaren aurkako politiken kontrako protestak eta migrante zein beste kolektibo zaurgarriekiko elkartasun ekintzak deskriminalizatzeko; lan berdinek ordain bera dutela ziurtatzeko; erreproduktzio sozialeko eginkizunen sozializazioa: inbertsioak ekipa-

menu kolektiboetan (haurtzaindegiak, jantokiak, garbitegiak); tokiko erabaki politikoetan herritarren parte hartze handiagoa; edateko ur-iturrien eta biziraupenerako oinarrizko bitarteko guztien babesa; finantza handien, zorpetzearen eta austeritatearen kontrako borroka; ugaltzeko osasun arreta doakoa; mugak irekitzea, zirkulazio eta instalazio eskubidea; batez ere NATOk bultzatu eta jendarte osoak suntsitzen dituzten gerra inperialisten amaiera.

HERRI GOBERNU BATEK HARTU BEHARREKO NEURRI KONKRETUAK:

Finantza-kapital handiaren zergak igo behar dira arlo publikoa zeharo hedatze aldera inbertitzeko, batik bat trantsizio ekologikoarekin lotutako enpleguetan; arlo publikoan emakumeen lanaldi osoko enplegua gehitu; lan berdinak soldata berdinez ordaintzeari buruzko legedia aplikatu eta hau betetzen ez duten enpresario pribatuak zigortu; haurtzaindegi, jantoki eta garbitegi kolektiboen eskaintza hedatu; irakaskuntza, osasungintza eta gizarte-zerbitzuetan enpleguen feminizazioa galarazi, emakume eta gizonen arteko orekara joaz; emakumeen ibilbide profesionala amatasun baimenen ondorioz eten dadin ekidin; LGTBQI+ kolektiboen eskubide zibil eta laboralen aldeko legedia hobetu eta aplikatu; enple-

gu publikorako sarbidean kuotak ezarriko dituen legea egin, berdintasun baldintzetan, immigrazio jatorriko biztanleentzat; berdintasunaren aldeko legedia babestu kanpaina publikoak eginez arrazismoa eta genero-zapalkuntza eta -diskriminazioa borrokatzen duten komunitate eta mugimenduen alde; lege erreformak bortizkeria sexistaren biktimak babesteko, batik bat adin txikikoak, kanpaina publikoekin eta emakume zein gazte mugimenduei laguntza materiala emanaz; eguneroko bizimoduari buruzko guztian parte hartze herritarra areagotuz, arlo publikoko lantoki guztietan autogestio mekanismoak ezarri eta autogestio komunitarioko mekanismoak.

Guk desio dugun feminismoa ez da banku eta enpresetan botere-posizioak dituzten emakumeen gutxiengoarena, zeina langileen, migranteen, sektore zaugarrien eta gure seme-alaben kalterako den. Aitzitik, gure feminismoa borrokalaria da, egunero milaka emakumeren heriotza eta beste ehundaka milakaren esplotazioa dakarten politiken aurkakoa, bai baitakigu gure etsaia kapitala dela, gure bizitzako dimentsio guztietan presente dagoena.

*Gure hautua, feminismo
borrokalaria da
emakumeak erahil
eta esplotatzen dituzten
politiken aurka, gure etsaia
delako bizitzako dimentsio
guztietan presente
dagoen kapitala*



7. ATALBURUA

Osasuna, hezkuntza eta etxebizitza

2008ko finantza-krisia lehertu zenetik gaur arte munduan eta Europan ezarri diren austeritate neurriek gizarte-gastua jan dute. Aurrekontu- “diziplina” zorrotza inposatu dute, aurrez ere gainbehera zeuden hezkuntza eta osasungintzan gastua areago moztuz, eta gerra agertoki bat leporatu diete dirusarrerarik ez duten edo oso urriak dituzten biztanleriaren sektoreei. Hau da aldatu nahi duguna. Hezkuntzaren, osasungintzaren, zaintzaren eta bizileku duinaren aldeko borroka gure emantzipatzeko eta bizi-baldintzak zeharo hobetzeko ahaleginaren parte dira.

Gure proposamenak aldi berean zuzentzen zaizkie herri mugimenduei eta gobernura irits daitezkeen indar politikoei. Gure ustez osasungintza eta hezkuntza doako eta irisgarriaren aldeko borroka da alternatiba bideragarri bakarra.

Hezkuntzaren, osasunaren, zaintzaren eta bizileku duinaren aldeko borroka gure emantzipatzeko eta bizi-baldintzak zeharo hobetzeko ahaleginaren parte dira

Herri mugimenduentzako berehalako proposamenak:

LEHENTASUNAK IZANGO DIRA, BATETIK, SUSTATZEA HEZKUNTZA, OSASUNGINTZA, ZAINZTA ETA ETXEBIZITZA ZERBITZU PUBLIKO, IRISGARRI ETA DOAKOAK; BESTETIK, –OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN BIDEZ– INDUSTRIA FARMACEUTIKOAREN ETA PRODUKTU FARMACEUTIKOEN BANAKETAREN

**Zerbitzu publiko irigarri
eta doakoen aldeko
kanpaina bultzatu,
-osasan sistema
publikoaren
bidez- industria
farmazeutikoaren eta
produktu farmazeutikoen
banaketaren sozializazioa,
soldaten igoera,
enplegu eta
bizi-baldintza duinak**

**SOZIALIZAZIOA, SOLDATEN IGOE-
RA, ENPLEGU ETA BIZI-BALDINTZA
DUINAK.** Halaber, exijitu behar da
berehala amai dadila liberaliza-
zioa, pribatizazioa eta merkantili-
zazioa biztanleria guztiari sarbidea
bermatu behar zaion sektoreetan;
auditoretza herritarra bultzatzea
elkartze publiko-pribatu kontra-
tuen eta hauen ondorioz sortutako
zorren kasuan; hezkuntza eta osa-
sun sistema pribatuen finantziazioa
bertan behera uztea; hezkuntza,
osasungintza eta zaintza sistemen
sozializazioa bultzatzea; guztien-
tzat 12 hilabeteko amatasun baime-
na sustatzea; hezkuntza maila guz-
tietarako sarbidea berdintasunez
eta doan izatea, lehen haurtzarotik
unibertsitateraino; doako jantokia
ikasle guztientzat; kalitatea lehe-

netsi, ez kantitatea: gizakiok ez gara
kopuruak.

Herri gobernu batentzako
berehalako proposamenak:

Ekipamendu militarreko eta de-
fentsarako inbertsioak gehitu or-
dez, **HERRI GOBERNU BATEK BA-
LIABIDEAK BIDERATU BEHAR DITU
HEZKUNTZARA, ETXEBIZITZARA,
OSASUNGINTZARA ETA ZAINTZA
ZERBITZUETARA, KOLEKTIBITATE
GUZTIAREN ONERAKO.** Gainera,
hezkuntza-, osasun- eta zaintza-
zerbitzuetako langileen duintasuna
berreskuratu eta haien soldatak ho-
betu behar ditu; elkartze publiko-
pribatu planak bertan behera utzi;
etxebizitza oinarrizko erabilpen
balio gisa definitu (ez truke-balio
gisa); osasun, hezkuntza eta zain-
tza sistema publikoetan inbertitu,
eta ez sustatu interes pribatua, oi-
narria hautu librearen ideologia
duena; oinarrizko zerbitzu hauen
sistema pribatuetako inbertsioak
bertan behera utzi; ziurtatu integra-
tuko direla balioezintasun, pobrezia
edo beste diskriminazio erak medio
hezkuntza sistematik kanporatu-
tako adin txikikoak euren garapene-
rako behar besteko baliabideak jar-
rri, beharrezko hezkuntza-arreta
espezializatua eskaintzeko; errenta
edo arrazaren ondoriozko hezkun-
tza-segregazioa amaierazi; inber-
titzean kalitatea lehenetsi, lehia
sustatzen duten test kuantitatiboen

gainetik; ikasgelako ikasle kopurua jaitsi; herri-erakundeen gaineko presioa arindu, irakasle, sendagile eta erizainak eta zaintza sektoreko langileak gehituz, beharrizan sozialen arabera kalitatezko zerbitzua bermatzeko.

Herri gobernuen epe erdirako programa:

HERRI GOBERNU BATEK HEZKUNTZA, OSASUNGINTZA ETA ZAINTZA SISTEMAK ERABAT SOZIALIZATU BEHAR DITU, arlo publikora itzularaziz egun sektore pribatuak eskaintzen dituen zerbitzuak. Kolektiboki administratutako etxebizitza-parke publiko baten sorrera sustatu; higiezin-funtsak desjabetu hauen etxebizitza-parkeek funtzio soziala betetzen ez dutenean edo biztanleriaren gehiengoaren esku ez dagoenean. Halaber, hezkuntza-, osasun- eta zaintza-zerbitzuen autogestioa sustatu eta garatu behar du, profesionalen aldetik, parte hartuko dutelarik ere erabiltzaileek, herritarrek eta tokiko administrazioko ordezkari politikoek; herritarren zuzeneko inplikazioa sustatu osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetako autogestio batzarren bidez; hezkuntza, sendagai eta zaintzak erabateko askatasunez eta doan izateko bermea; goi-irakaskuntzaren erabateko doakotasuna bermatu, eta ikasle guztiei ikasketak egiteko laguntza unibertsala eman; ikerketa

publikoan nazioarteko lankidetzaz bultzatu, batik bat osasungintza arloan, aurre egiteko fragmentazioari, monopolioen eraginari, justifikaziorik gabeko erosketei eta industria farmazeutiko handiak inposatutako kostu izugarriari; herrialde aberatsenetatik txiroenetara aberastasuna birbanatzeko sistema antolatu, batik bat hezkuntza, osasungintza eta zaintza, sektoreetan; eskubide berdintasuna bermatu herritarrei –edozein dela ere nazionalitatea– eta arlo publiko sozializatuko langile guztien enpleguari.

HEZKUNTZA, OSASUN, ZAINTZA ETA ETXEBIZITZA SISTEMA PUBLIKOAK GARATU, ZAINDU ETA INDARTZEA EZINEZKOA DA EUROPAR BATASUNAREN ETA EUROAREN MARKOAN. Programa hau gauzatzeko aukerarik ez dago ez bazaio erasotzen zorraren eta austeritatearen ekonomiarik. Atalburu hau hezkuntza, osasun eta etxebizitza zerbitzuei buruzkoa izan da, baina beharrezkoa da ere zerbitzu publikoen inguruko beste gai batzuri heltzea, esaterako garraio publikoa eta tokiko komunitateen beharrizan eta exijentziekin lotutako beste hainbat alorri.

*Hezkuntza, osasun, zaintza
eta etxebizitza sistema
publikoak garatu, zaindu
eta indartzea ezinezkoa da
era berean ez bazaio
erasotzen zorraren eta
austeritatearen
ekonomiari eta,
horrenbestez,
Europar Batasunaren
eta euroaren markoari*



8. ATALBURUA

Nazioarteko politikak

Batez ere Mediterraneoan milaka migranteren heriotza eragin duen Europar Batasuneko gotorlekuaren baitan erdigunearen eta periferiaren arteko desberdintasunen aurka jo behar dugu, baita munduko beste aldeetan Europako potentzia nagusien neokolonialismoaren kontra ere.

Berehalako ekimen herritarrak, nazio eta nazioarteko mailan, batez ere herri mugimenduek bultzatu beharrekoak:

Europako ezker herrikoiak Europa Gotorlekuko immigrazioaren aurkako politikari aurre egingo dieten herri mugimenduetan parte hartu eta hauek garatu behar ditu, esate baterako, honakoak eginez: migranteentzako ostatuak antolatu; mugak zeharkatzen lagundu; migranteak internatzeko zentroak salatu; mugak irekitzearen alde manifestazio handiak antolatu, eta

Mugak irekitzearen eta migranteei harrera duina ematearen alde; imperialismo ekonomiko eta militarri aurre egiten dioten herri mugimenduetan parte hartu

migranteak duintasunez hartu. Harremanetan jarri behar da ere Europatik kanpo emantzipazio politikan inplikaturako talde eta banakoekin.

Europar herrialdeekiko **BESTE HERRIALDEEK DITUZTEN ZORREN AUDITORETZA HASI ETA GARATU** behar dugu, EBk edo bere kideek erreklamatzeko dituzten zor ilegítimo eta gorrogatarriak deuseztatzeko; hala-

**NATOrekin hautsi
eta munduko
armagabetzearen aldeko
konpromisoa hartu**

ber, **ZALANTZAN JARRI BEHAR DIRA** garapen bidean dauden herrialdeek sinatutako **MERKATARITZA LIBREKO AKORDIOAK** eta nazio menperatuaren dependentzia areagotzen duten beste politika ekonomikoak. Israelgo estatuauren kolonialismo populistaren aurkako “Boikota, Desinbertsioa, Zigorrak” (BDS) kanpainan parte hartze aktiboa izan behar dugu. Europako ezkerreko taldeak eta herri mugimenduak gerra inperialista eta kontrairaultzaileen aurka agertu behar dira, edozein dela ere hauen jatorria, eta salatu egin behar dute beren gobernuak giza-eskubideen urraketan inplikaturako erregimenekin indarrean duten lankidetzaz.

Herri gobernantz nazio mailan hartu beharreko lehen neurriak:

Nazioarteko politikan erabateko etena adierazteko, **NATOKO KIDE DEN HERRIALDE BATEKO HERRI GOBERNU BATEK ERAKUNDE HORTATIK ATERA ETA BERAREKIKO LANKIDETZA ORO BERTAN BEHERA UTZI BEHAR DU.** Estatuarekin eta klase kapitalistarekin loturarik estuena duen agintaritzaz militarra kargutik kendu eta armada kontrol demokratikopean berrantolatuko da. Estatu

atzerriko gerretan nahasten bada (esaterako Malin), erretiratzeko prozesuari ekingo dio, lehenbailehen burutzeko, eta bere ekintza laguntza humanitarioarekin ordezkaturiko du, eragindako biztanleriaren kontrol demokratikoaren pean. Arma industria sozializatu eta atzerrian armen produktio eta salmentari luzamendu bat ezarriko dio. **MUNDU MAILAKO ARMAGABETZEAREN ALDEKO KONPROMISOA HARTU ETA BERE ARMATEGI NUKLEARRA DESEGINGO DU, HALAKORIK BALU.**

HERRI GOBERNU BATEK BERE MUGAK IREKI BEHAR DITU, BERE LURRALDERAKO SARBIDE SEGURUA BERMATU MIGRANTEEI (BATIK BAT ITSAS-BIDEETAN) ETA GUZTIENTZAKO MUGIMENDU ETA EZARPEN ASKATASUNA ZIURTATU. Migranteak barneratzeko zentroak itxiko dira. Bermatu egin behar da eskubide berdintasuna, osasun-arreta, hezkuntza publikoa eta bizileku duina barne; herri gobernu baten jurisdikzioan sartzen den pertsona orori eskubide zibil guztiak aitortu behar zaizkio, boto eskubidea barne, jurisdikzioko maila guztietan. Mugen kontrolerako europar aurrekontu komunetarako finantza-ekarpen oro bertan behera geratuko da (esaterako, Frontexekoak). Estatuak itsasindar militarrik badu, armagabetu egingo du, kontrol demokratikoaren menpe jarri eta ekintza humanita-

rioetarako erabili (esaterako, Mediterraneo itsasoan).

HERRI GOBERNUAK LUZAMENDUA EZARRIKO DU BESTE HERRIEK HARTUTAKO ZORREN GAINEAN, AUDITORETZA PARTE-HARTZAILE BATEN EMAITZAK EZAGUTU ARTE. Menperatutako nazioek hartutako zor guztiak, EB barnean zein kanpoan (esaterako, Greziarena), deuseztatu egingo dira, erreklamazio ilegitimo eta gorrotagarriak bezalaxe. Herri gobernuak ez du dirurik jarriko menperatuta dauden herrialdeak azpiratzen lagungarri diren nazioarteko finantza-erakundeetan, adibidez NDF eta Munduko Bankuan. MMEren arauak ez ditu betek; garapen apala duten herrialdeen kalterako den merkataritza libreko akordio orotatik erretiratuko da, eta horren orde herrialde horiei bidezko merkataritza proposatuko die. **ZIGORRAK EZARRIKO DIZKIE BERE HERRIALDEAN JARDUN ETA ATZERRIAN LEGE NAZIONALAK EDO NAZIOARTEKOAK URRATZEN DITUZTEN ENPRESEI.** Paradisu fiskalekiko transakzioak debekatuko ditu, baita zigortu ere. Nazio menperatuei erabilgarri den edozein teknologia doan transferituko die.

HERRI GOBERNU BATEK AITORTU EGINGO DU KOLONIZAZIOAREN IZAE-RA SUNTSITZAILEA, baita esklabotza, gerra kolonialak, esterminio gerrak

*Mugak ireki,
migranteentzako ibilbide
seguruak bermatu
eta guztientzako
zirkulazio eta ezarpen
askatasuna ziurtatu*

eta sarraski kolonialak ere; garai batean koloniak izan baditu hauei ordainduko zaien finantza-konpentsazioa erabakitzekeo prozesuari ekingo dio, eta itzuli egingo ditu haiei ebastitako kultur-ondasunak.

HERRI GOBERNU BATEK NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA ETA OINARRIZKO GIZA-ESKUBIDEAK URRATZEN DITUZTEN ERREGIMENAK ZIGORTUKO DITUZTE, menperatutako herrialdeen kasuan, ziurtatuz, erregimen horietako biztanleriak prozesuan arriskurik ez duela pairatuko. Nazio zapalduetako eta talde etnikoetako (esaterako palestinarren, kurduen, sahararren, rohingyaren) babesa eskainiko die, laguntza humanitario eta diplomatikoaren bidez. Zuzenean mehatxupean dauden biztanleei laguntza emango die, behar izatekotan neurriak hartuz erregimen kriminaletan sarraskiak galarazteko.

Herri gobernu batek herri mugimenduekiko epe erdira egin beharreko urratsak:

Bakartuta badago, egoeratik ateratzeko herri gobernu batek masa-mo-

***Herri gobernuak bakartuta
badago bakearen,
elkartasunaren eta justizia
sozialaren aldeko
nazioarteko mobilizazioak
deitu behar ditu***

bilizazioak egingo ditu iraultzaren kontrako barne- eta kanpo-mehatxuei aurre egiteko. Honelako gobernu batek nazioarteko mobilizazioa deituko du bakearen, elkartasunaren eta justizia sozialaren alde. Negoziazioetan eta alde anitzeko erakundeetan gobernu prokapitalistek egiten duten etengabeko xantaia eta botatzen dituzten mehatxuak publikoari jakinaraziko dizkio. Horretarako ondo bereiziko du zer da goen kalkulu diplomatiko taktikoek eraginda (lankidetzaren hori ekarriko luketenak) eta aliantza politiko estrategikoak (ezin direnak gobernu prokapitalistekin egin), eta zuzentarau horiek biztanleriaren kontrol demokratikoaren pean jarriko ditu.

***Nazioarte mailako neurriak
epe erdira:***

Herri gobernuak **FINANTZA-ERAKUNDE KOMUN BAT ERATUKO DUTE, SOLIDARITATEAN OINARRITUA, MENPEKO HERRIALDEEI INTERESIK GABEKO MAILEGUAK ESKAINTZEKO, EB BARNEAN ETA KANPOAN.** Lankidetzaren berri bat ezarriko dute arlo ekonomiko, sozial eta eko-

logikoan, eta berdintasunezko legegia egingo dute (esaterako, lan eskubideetan, gizarte-segurantzaren eta etxebizitza politikan) dagokien herrialdeen artean araurik zorrotzenak oinarritzat hartuta. Herri gobernuak itun juridikoki lotesle bat egingo dute enpresa transnazionalak derrigorrezko nazioarteko zuzenbidea errespetatu dezaten, eta nazioarte mailan elkar hartuko dute aldaketa soziala eta trantsizio ekologikoa sustatzeko. Indar-erlazio aski sendoa osatuko dute potentzia zapaltzaileekin negoziazio esanguratsuak hasteko, konpontze aldera arazo nazionalak (esaterako, Palestina, Mendebaldeko Sahara edota Kurdistanen) eta gerra zibil luzeak (Siria).

9. ATALBURUA

Borroka sozialak,
konfrontazio
politikoak
eta prozesu
eratzailleak

*Europar instituzioei ez
obeditzea, aurre egitea eta
haiekin haustea,
haien ordez, European,
herri-lankidetzaren eta
erakunde demokratiko
berriak jartzeko*

EUROPAR INSTITUZIOAK (EB-KOAK ETA EUROGUNEKOAK) ESTRUKTURALKI NEOLIBERALAK ETA ANTIDEMOKRATIKOAK DIRA, ETA DESBERDINTASUNA AREAGOTZEN DUTE. Oztopoa dira estatu bakoitzaren baitan langileklaseen beharrianak, aldarrikapenak eta eskubideak asebetetzeko, baita europar herrialdeen arteko elkartasun eta berdintasunerako ere. Lehiaren logikaren aurka, trantsizio ekologikoaren ikuspuntutik, borrokan eta alternatiba konkretuen eskala europarra oso garrantzitsua da. Nahi dugu Europa komuna izatea, baina hau ezinezkoa da egungo europar instituzioekin. Gure ager-

**EBko itun, agindu
eta erabakiak
modu koordinatuan
desobeditzea**

tokiak proposatzen du toki, nazio eta nazioarteko mailan dauden borroka sozialetatik abiatuta erakitzea, **EUOPAR INSTITUZIO EZ** demokratiko eta **KAPITALISTEI EZ OBEDITZEKO, AURRE EGITEKO ETA HAIKIN HAUSTEKO, HAIEN ORDEZ EUROPAR HERRI-LANKIDETZA ETA ERAKUNDE DEMOKRATIKO BERRIAK JARTZEKO.**

Europa komunerako “matxinada”
agertokiaren etapa nagusiak

1. GURE HELBURU SOZIAL, EKOLOGIKO ETA POLITIKO ALTERNATIBOAK BEREHALA JARRI BEHAR DITUGU PRAKTIKAN EUROPAR PLATAFORMA IRAUNKORREN ETA DESOBEDIENTZIA KOORDINATUAREN BIDEZ, ZEINAREN IPARRA HERRIEN ARTEKO LANKIDETZA IZANGO DEN. Kontua da toki, eskualde, nazio eta Europa mailan, auzi guztiei edo batzuri buruz (esaterako, zorra, migrazio politikak, trantsizio ekologikoa, Hegoaldearekiko eta ekialdeko Europarekiko akordio neokolonialak, etab.), aktore politiko batzuk erabakitzea ez dituztela beteko EBren itun, agindu eta erabakiak. Aditzera eman beharko lukete bat egiten dutela politika alternatiboak aplika-

tzea eta lankidetzaren formal berri bat ezartzeko epe luzera (auzi guztien edota auzi jakin batzuren inguruan). Desobedientzia prozesu hauek oinarriztat har ditzakete dauden borroka eta kanpaina konkretuak (lan zuzenbidean, moneta politikan, arrazismoaren aurkako borrokan, etab.) frogatzeko eragingarria dela europar eskalan aplikatzea helburu demokratiko, ekologiko eta sozialak, baita egungo itun eta politika neoliberaleraino buruzko kontraesana ere. Aktore politiko bat behin-behinean bakartuta badago, edonola ere indarrean diren politika eta instituzioak deslegitima ditzake, haiek desobedituz eta irtenbide alternatiboak gauzatuz eta publikoki proposatuz herri lankidetzaren eta autoantolakuntzaren forma berriak, ahal den maila guztietan.

2. NAZIO MAILAKO BORROKAK EGITEKO NABARMENDU BEHARRA DAGO ZER NOLAKO ELKARRERAGINA DAGOEN NAZIOETAKO KLASE NAGUSIEN ETA EUROPAR INSTITUZIOETAN NAGUSI DIREN IDEOLOGIA ETA EKONOMIA POLITIKOAREN ARTEAN. Kapitalaren hegemonia hausteko herri kontsulta eta mobilizazioen ardatza izan beharko lirake EBko klase nagusi eta instituzioen aurka proposatuko diren helburu eta programa konkretuak. Konfrontazioak ere esan nahi du EBren mehatxu eta erasoetatik defenditzeko tresnak martxan jar-

*EB gidatzen duten klase
eta instituzioei aurre egin,
erasoetatik defendituz eta
ekinaldi politiko
oldarkorrek eginez bloke
neoliberalak astintzeko eta
europar instituzioen
legitimitate eta
funtzionamenduaren
krisia eragiteko*

tzea, baita ekimen politika oldarkor-
rak, bloke neoliberalak astintzeko
eta europar instituzioen legitimitate
eta funtzionamendu krisia eragiteko.
Tresna hauek lehenbailehen erabili
behar ditu aktore politiko batek (ho-
rretarako aukera ematen duen es-
tatu, erkidego, udalerrri edo edozein
maila instituzionaletako gobernuak),
alde bakarrek erabakien bidez, esa-
terako zor publikoaren ordaina ete-
tea auditoretza egiten den bitartean;
lanpostuak sortzeko politika publiko
programa bat, oinarriztat kapitalaren
berariazko zergapetzea hartuta; kapi-
tal-fluxuen kontrola, eta sozializazio/
nazionalizazio jakin batzuk, borroka
eta aldarri konkretuekin lotuak. Ak-
tore politiko bat behin-behinean ba-
kartuta badago, berak erabili behar
ditu tresna hauek eta, Europa guztiko
herri mobilizaziora deituz (ez soi-
lik bere inguru geografikoan), beste
aktore batzuri proposatu behar die
europar instituzioen deslegitimazioa
eta krisi politikoa lortzeko lagun de-
zatzela.

3. Halako defentsarako tres-
nak eta ekinaldi politiko
oldarkorrek medio, **HE-
RRI GOBERNUEN ALDETIK** derrigor
**EUROPAR ITUN ETA INSTITUZIOE-
KIKO HAUSTURA** gertatuko da **NA-
ZIO MAILAN**. Herri gobernu baten
erabaki guztiak, Manifestuan aurrez
deskribatu izan den legez, gutxie-
nik nazio mailan haustura eskatzen

dute nagusi diren politika eta arau
europarrek. Argi utzi behar da
guk defenditzen duguna ez dagoela
“interesa nazionala”ri lotuta, baizik
helburu politiko, sozial, ekologiko
eta demokratikoei, zeintzuk egungo
Batasunearen barnean eta hortik
kanpo pertsona guztiei eragiten
dieten. Kontrol demokratikopean
izango den moneta eta moneta-sis-
temaren defentsa irmoa egin behar
da eta, beraz, bankuak sozializatu
eta kapital-fluxuak kontrolatu be-
harra baietsi. Haatik, neurri hauek
BEMarekin eta EBko itunekin talka
egiten dute. Herri gobernuak era-
baki dezake BEMetik eta EBtik alde
egitea (adibidez, 50. artikulua akti-
batuz, hau baliagarria bada), edota
BEMetik zein EBtik egotzia izateko
erronkari aurre egitea.

*Prozesu eratzailleak hasi
ahal den maila guztietan,
lankidetzaz berriak
sortzeko, haustura
prozesuak errazteko,
Europa Gotorlekua
eraisteko eta, azkenik,
europar eta nazioarteko
eremuan instituzio
alternatiboak sortzeko*

4. PROZESU ERATZAILAK HASI BEHAR DIRA AHAL DEN MAILA GUZTIETAN

ALTERNATIBAK ERAIKITZEKO Europan lankidetzaz politiko berriari ekiteko, zeinaren oinarria izango den tokiko klase nagusien eta europar instituzioen aurkako plataforma amankomun bat, baita joera xenofoboaren kontrako ere, eta langileen zein menpeko klase guztien eskubide sozialen eta ingurumena babestearen aldekoa. Agertokia ezin da aurrez finkatu, baina adibidez elkarte, hiri, eskualde edota Estatu matxinoen aliantza batek “prozesu eratzaille matxinoa” bultzatzen dezake (eskumen funtzional orokor edo espezifikoei buruz), irekita egongo litzatekeena ere desobedientzia prozesuan hasieratik bertatik inplikatu gabeko espazio politikoei. Prozesu eratzailleok, zeintzuk forma desberdina har dezaten

keten dagozkion egoera eta eskalen baitan (udal foro eta sareetatik hasi eta nazio zein Europa mailako batzar eratzailleetaraino, plataforma internazionalistekin elkartuak), hasi behar dira lankidetzaz berriak sortzeko, oraindik ere konpromisoa hartu ez duten aktore politiko auzokideen aldetik haustura prozesuak sustatzeko, Europa Gotorlekua eraisteko eta, azkenik, Europa eta nazioarteko instituzio alternatiboak eratzeko. Aktore politiko bat uneren batean bakartuta badago, bakarrik ekin beharko dio “prozesu eratzaille matxino” horri dagokion lurralde eta gaiaren inguruan, eta beste aktore batzuk gonbidatu prozesuan parte har dezaten.

Proposamenak.

Berehalako ekimenak:

Arestian deskribatutako etapa bakoitzak berehalako ekimenak eskatzen ditu. Baldintza nagusiak dagozkie diseinu kolektiboari eta herriak apropiatzeari desobedientziarako, konfrontaziorako eta prozesu eratzaileren ekimenerako beharrezko tresna konkretuak, baita hauek gauza ditzaketen indar sozial eta politikoen batasuna ere.

Zehazki, 2019 urterako indar progresista guztiei (sindikatu, erakunde politiko, elkarte, kolektibo militante...) proposatzen diegu antzeko helburuak finkatzea: **ERAKUNDE EUROPAR KAPITALISTA ETA ANTI-**

DEMOKRATIKOEI EGITEN DIETEN KRITIKA BATERA AREAGOTZEA eta proposamenak zehaztea instituzio horien hegemonia hausteko eta herri lankidetzaren forma berriak bererreraikitzeko; **BERRIZ EGUNERATU, PARTEKATU ETA SOZIALIZATU GARAPEN KONBERGENTEAK, ESATERAKO ALTERSUMMIT MANIFESTUA ETA RECOMMONSEUROPE MANIFESTUA; TOKI, NAZIO ETA EUROPA MAILAN “PROZESU ERATZAILE MATXINO”EN ALDEKO EKIMEN GARANTZITSU GUZTIEN GARAPENA SUSTATU**, esaterako Frantzian “Jaka Horien” mugimenduko partaide batzurenak; europar hauteskondeak baliatu has-teko **KANPAINAK ETA AGERTOKI HONI ETA DITUEN ONDORIOEI BURUZKO HERRI EZTABAIDAK**; dauden ekimenei buruz eta agertoki honetan parte har lezaketan espazio alternatiboen inguruko informazioa eman, eta indar sozial zein politikoak honen inguruan bildu.

*Indar progresista guztiei
proposatu europar
instituzioekiko kritika
areagotzea, gure proiektu
konbergenteak partekatu
eta hedatzea, “prozesu
eratzaille matxino”en
aldeko ekimen guztien
animatuz, kanpainei
ekinez eta herri eztabaidak
hasiz hemen proposatzen
diren agertokiei buruz*

LEHEN 150 SINATZAILEEN ZERRENDA

ALEMANIA

Jakob Schäfer (ezker sindikaleko militantea)

Angela Klein (SOZ aldizkaria)

AUSTRIA

Christian Zeller (geografia ekonomikoko irakaslea, Aufbruch für eine ökosozialistische Alternative-ko kidea)

BELGIKA

Anne-Marie Andrusyszyn (CEPAGeko zuzendaria)

Eva Betavazi (CADTM Belgika-Zipre)

Olivier Bonfond (CEPAGeko ekonomilaria)

Camille Bruneau (CADTM Belgika)

Juliette Charlier (CADTM Belgika)

Tina D'angelantonio (CADTM Belgika)

Virginie de Romanet (CADTM Belgika)

Jean-Claude Deroubaix (soziologoa)

Ouardia Derriche

Grégory Dolcimasolo (ACIDE)

Anne Dufresne (soziologoa, GRESEA)

Chiara Filoni (CADTM Belgika-Italia)

Corinne Gobin (politologoa)

Gilles Grégoire (zorraren auditoretza herritarreko militantea, ACIDE, CADTM Belgika)

Giulia Heredia (CADTM Belgika)

Nathan Legrand (CADTM Belgika)

Monique Lermusiaux (militante sindikal erretiratu)

Rosario Marmol-Perez (FGTBko militante sindikala, artista)

Heman Michiel (Ander Europako editorea, Belgika-Her-behereak)

Alice Minette (CADTM Belgika)

Christine Pagnouille (Liejako Unibertsitatea, ATTAC, CADTM)

Adrien Péroches (militantea, CADTM Brusela, ACIDE Brusela)

Madeleine Ploumhans (ACIDE, CADTM Lieja)

Brigitte Plonet (gizarte-langilea, CADTM Belgika)

Daniel Richard (FGTB Vervierseko lanbidearteko eskualde-idazkaria)

Christian Savestre (Attac Brusela,2, RJF, ACIDE)

Éric Toussaint (politologoa, ekonomilaria, CADTM nazioarteko sarearen bozeramailea)

Felipe Van Keirsbilck (Centrale Nationale des Employés-en idazkari nagusia)

Christine Vanden Daelen (militante feminista, CADTM Belgika)

Magali Verder (militante feminista)

Roxane Zadvat (aktorea, Teatro Croquemitaine, CADTM Belgika)

BOSNIA-HERZEGOVINA

Selma Asotic (poeta)

Danijela Majstorovic (Banja Lukako Unibertsitatea)

Svetlana Nedimovic (aktibista, Sarajevo)

Tijana Okic (filosofoa, militante politikoa)

ZIPRE

Stavros Tombazos (ekonomilaria)

KROAZIA

Dimitri Birac (Kroaziako Langileen Elkartasunerako Zentroaren koordinatzailea)

DANIMARKA

Poya Pakzad (politika ekonomikoko aholkularia, Aliantza Gorri-Berdea)

ESLOVENIA

Ana Podvršic (soziologoa, ekonomilaria)

ESPANIAR ESTATUA

Walter Actis (Ecologistas en Acción)

Daniel Albarracín (ekonomilaria, Podemos)

Yago Alvarez (kazetaria, PACDeko aktibista)

Joana Bregolat (Desbordem-eko kidea, Anticapitalistes-eko militantea, Katalunia)

José Cabayol Virallonga (SICOMen lehendakaria – Solidaritat i Comunicació, Katalunia)

Laura Camargo (irakaslea, Illes Balearseko Parlamentuko Diputazio iraunkorreko kidea, Anticapitalistas-eko militantea)

Raúl Camargo (Madrilgo Asanbleako diputatua, Anticapitalistas-eko militantea)

Pablo Cotarelo (ERENSEP)

Sergi Cutillas (ERENSEP, CADTM Katalunia)

Josu Egireun (Viento Sur aldizkaria)

Laia Facet (Anticapitalistes, Katalunia)

Sònia Farré (militantea, En Comú Podem-eko diputatua, Katalunia)

Ignacio Fernández del Páramo (arkitekto-urbanista, Ovi-doko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen zinegotzia, SOMOS OVIEDO-UVIEU, Asturias)

Iolanda Fresnillo (soziologoa, PACD)

Anna Gabriel (Kataluniako Parlamentuko diputatua, Suitzan erbesteratua)

Ricardo García Zaldívar (ekonomilaria, ATTAC Espainiako koordinatzaile ohia)

María Gómez Garrido (soziologiako irakaslea, Universidad de las Islas Baleares, Anticapitalistas)

Laura Gonzalez de Txabarri (ELA sindikatua, Euskal Herria)

Joana Garcia Grenzner (kazetaria, genero eta komunikazioan aditua, aktibista feminista, Katalunia)

Yayo herrero (antropologoa, ekofeminista, Ecologistas en Acción)

Cuca Hernández (ATTAC Espainiako koordinatzailea)

Juan Hernández Zubizarreta (unibertsitateko irakaslea, Observatorio de las Multinacionales en América Latina-OMAL)

Petxo Idoiaga (Hitz&Hitz fundazioa, Viento Sur)

Joxe Iriarte Bikila (aktibista soziala, Alternatiba-EH Bilduko militantea, Euskal Herria)

José L.Gómez de Prado (Universidad de Barcelona, Centro de Estudios Internacionales, Escuela Diplomática de Barcelona, AEDIDH)

Janire Landaluze (ELA sindikatua, Euskal Herria)

Mats Lucia Bayer (CADTM)

Fátima Martín (kazetaria, CADTM)

Alex Merlo (Podemoseko Miguel Urban eurodiputatuaren laguntzaile parlamentarioa)

Anna Monjo (editorea, Barcelona, Katalunia)

Natalia Munevar (militantea, PACD, Podemoseko Miguel Urban eurodiputatuaren laguntzaile parlamentarioa)

Mikel Noval (ELA sindikatua, Euskal Herria)

Jaime Pastor (Viento Sur aldizkariko erredakziorburua)

Laura Pérez Ruano (irakaslea, abokatua, Orain Bai-Ahora Sí diputatu ohia, Nafarroa)

Griselda Piñero Delledonne (CADTM Katalunia)

Eulalia Reguant (CUPeko idazkaritza nazionalako kidea, diputatu eta zinegotzi ohia, Katalunia)

Jorge Riechmann (filosofoa, idazlea, Ecologistas en Acción)

Rubén Rosón (sendagilea, Oviedoko Udaleko ekonomia eta enpleguko zinegotzia, Somos Oviedo-Uvieu, Asturias)

Sol Sánchez Maroto (Izquierda Unida Madrildo bozeramailea)

Carlos Sánchez Mato (Izquierda Unidako politika ekonomikoen arduraduna)

Ana Taboada Coma (abokatua, Oviedoko alkateordea, Somos Oviedo-Uvieuaren bozeramailea, Asturias)

Aina Tella (CUPen nazioarteko harremanen koordinatzailea, Katalunia)

Mónica Vargas Collazos (antropologoa, militantea, Bolivia-Katalunia)

Lucía Vicent (Madrildo Universidad Complutenseko ekonomia irakaslea)

Esther Vivas (kazetaria, Katalunia)

FRANTZIA

Marion Alcaraz (NPA, Le temps des Lilas)

Olivier Besancenot (NPAREN bozeramaile ohia)

Martine Boudet (Urgence anticraciste - Pour une démocratie inclusive liburuaren koordinatzailea)

Myriam Bourgy (nekazaria, CADTM Frantzia)

Vicki Briault Manus (PCF, CADTM Frantzia)

François Chesnais (ekonomilaria, Paris 11 unibertsitateko irakasle emeritua)

Jeanne Chevalier (la France Insoumiseko hautagaia 2019ko hauteskunde europarretan)

Annick Coupé (sindikalista, ATTAC Frantzia)

Léon Crémieux (aire-garraioko sindikalista erretiraua, NPA)

Alexis Cukier (filosofoa, Ensemble!, ERENSEP)

Véronique Danet-Dupuis (banku sektoreko koardoa, ordezkari sindikal eta langileen defendatzailea, la France Insoumiseren gai bankarioen arduraduna)

Penelope Duggan (International Viewpoint)

Pascal Franchet (CADTM Frantziako lehendakaria)

Isabelle Garo (filosofoa)

Norbert Holcblat (ekonomilaria, NPA)

Michel Husson (ekonomilaria)

Pauline Imbach (okina, CADTM Grenoble)

Pierre Khalfa (Fondation Copernic)

Yvette Krolkowski (CADTM Frantzia)

Michael Löwy (soziologoa)

Laurence Lyonnais (Ensemble Insoumis, ekosozialista, la France Insoumiseren hautagaia 2019ko hauteskunde europarretan)

Jan Malewski (kaetaria, Inprecor aldizkaria)

Myriam Martin (Ensemble!-ren bozeramailea)

Christiane Marty (ingeniaria, Fondation Copernic)

Gustave Massiah (ekonomilaria, altermundialista)

Corinne Morel Darleux (egile eta militante ekosozialista)

Ugo Palheta (soziologoa, NPA, Contretemps)

Gilles Perret (J'Veux du soleil filmearen zuzendaria)

Mireille Perrier (aktorea eta antzerki zuzendaria)

Dominique Pilhon (ekonomilaria, ATTAC Frantzia)

Laura Raim (kazetaria)

Marlène Rosato (Ensemble, ERENSEP)

Pierre Rousset (ESSF www.europe-solidaire.org)

Catherine Samary (ekonomilaria, ATTAC Frantzia, NPA)

Mariana Sanchez (sindikalista)

Patrick Saurin (CADTM Frantzia)

M.Sofia Brey (idazlea, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Ordezkaritzako funtzionario ohia)

Alejandro Teitelbaum (abokatua, nazioarteko zuzendean eta giza eskubideetan aditua)

Auréli Trouvé (ekonomilaria, ATTAC Frantzia)

Sophie Zafari (FSUko sindikalista)

Roseline Vachetta (eurodiputatu ohia, militante internazionalista, NPA)

GREZIA

Marie-Laure Coulmin (CADTM Grezia)

Katerina Giannoulia (ADEDY funtzio publikoko konfederazioko Kontseilu Nagusiko kidea, Herri Batasuneko kidea)

Stathis Kouvelakis (ERENSEP, Grezia-Erresuma Batua)

Costas Lapavistas (ekonomilaria, SOAS-Londresko unibertsitatea, ERENSEP, Grezia-Erresuma Batua)

Moisits Litsis (kazetaria)

Sotiris Martalis (DEA)

Sonia Mitrailias (feminista, CADTM)

Giorgos Mitralias (kazetaria)

Antonis Ntavanelos (DEA)

Spyros Marchetos (historiagilea, Zientzia Politikoen Eskola, Tesalonikako Aristotele Unibertsitatea)

HUNGARIA

Judit Morva (ekonomilaria, militantea)

IRLANDA

Brid Brennan (analista politikoa, militantea)

Andy Storey (School of Politics and International Relations, University College Dublin)

ITALIA

Marta Autore (Communia Network)

Fabrizio Burattini (Unione Sindacale di Baseko sindikalista)

Eliana Como (CGILen zuzendaritza nazionala)

Gippò Mukendi Ngandu (maisua, Sinistra Anticapitalista)

Cristina Quintanavalla (ATTAC-CADTM Italia)

LUXEMBURGO

Justin Turpel (déi Lénk-La gauche-ko diputatu ohia)

David Wagner (déi Lénk-La gauche-ko diputatua)

HERBEHEREAK

Willem Bos (SAP-Grenzeloos)

Maral Jefroudi (IIREko zuzendaria)

POLONIA

Katarzyna Bielinska (filosofo eta politologoa)

Zbigniew Marcin Kowalewski (herri mugimenduen ikertzailea)

Stefan Zgliczynski (Le Monde Diplomatique aldizkariaren edizio poloniarren zuzendaria)

PORTUGAL

Francisco Louça (ekonomilaria, Bloco de Esquerda)

Rita Silva (Habitako aktibista -Colectivo pelo Direito in Habitação- eta unibertsitateko ikertzailea)

Alda Sousa (Oportoko Unibertsitateko irakaslea, Bloco de Esquerda, eurodiputatu ohia)

Rui Viana Pereira (itzultzailea, soinu-disenatzailea, CADTM Portugal)

ERRESUMA BATUA

Gilber Achcar (SOASeko irakaslea, Londresko Unibertsitatea)

Grace Blakeley (New Statesman aldizkariko ekonomia komentarista)

Terry Conway (Resistance Books)

Fanny Malinen (ikertzailea, aktibista)

Michael Roberts (ekonomilari finantzarioa)

SERBIA

Andreja Zivkovic (soziologoa, Marks21)

SUITZA

Jean Batou (historia garaikideko irakaslea, diputatua, SolidaritéS)

Marianne Ebel (SolidaritéS diputatu ohia, Suitzako Emakumeen Mundu Martxako lehendakariordea)

Sébastien Guex (Lausanako Unibertsitateko irakaslea, SolidaritéS)

Stéfanie Prezioso (Lausanako Unibertsitateko nazioarteko historia irakaslea, SolidaritéS)

Beatrice Schmidt (irakaslea)

Juan Tortosa (CADTM Suitza)

Charles-André Udry (ekonomilaria, alencontre.org webgunearen eta Page2 argitaletxearen zuzendaria)



Manifestua zuzenean honako pertsonak idatzi dute:

Walter Actis (Ecologistas en Acción, espainiar Estatua)
Daniel Albarracín (ekonomilaria, Podemos, espainiar Estatua)
Jeanne Chevalier (France Insoumise, Frantzia)
Pablo Cotarelo (ingeniaría, EReNSEP, espainiar Estatua)
Alexis Cukier (filosofoa, EReNSEP, Frantzia)
Sergi Cutillas (ekonomilaria, EReNSEP, CADTM, Katalunia)
Yayo Herrero (antropologoa, ekofeminista, Ecologistas en Acción-eko kidea, espainiar Estatua)
Stathis Kouvelakis (filosofoa, EReNSEP, Grezia-Erresuma Batua)
Janire Landaluze (sindikalista, ELA, Euskal Herria)
Costas Lapavitsas (ekonomilaria, EReNSEP, Grezia-Erresuma Batua)
Nathan Legrand (CADTM, Belgika)
Mikel Noval (sindikalista, ELA, Euskal Herria)
Tijana Okic (filosofoa, militante politikoa, Bosnia-Herzegovina)
Catherine Samary (ekonomilaria, ATTAC Frantzia, NPA, Frantzia)
Patrick Saurin (CADTM, Frantzia)
Éric Toussaint (politologo eta ekonomilaria, CADTM, Belgika)

Azken idazkeraren koordinatzaileak: Alexis Cukier, Nathan Legrand eta Éric Toussaint

Ingelesetik gaztelaniarako itzulpena: Sergi Cutillas (EReNSEP, CADTM), Pablo Cotarelo (EReNSEP), Griselda Piñero (CADTM) eta Viento Sur aldizkariko itzulpen taldea.

Diseinua: Pierre Gottiniaux (CADTM)

Sinadurak edota iruzkinak hona bidali:

Mats Lucia Bayer, mats@cadtm.org

Manifestuaren testu osoa:

www.cadtm.org/Manifiesto-por-un-nuevo-internacionalismo-de-los-pueblos-en-Europa

OHARRAK

OHARRAK



OHARRAK

RECOMMONS EUROPE

EUROPAKO HERRIEN
INTERNAZIONALISMO
BERRIAREN
ALDEKO
MANIFESTUA